



Mundialetara

Ekhi Congil etxarriarrak Hego Koreako
Monoziklo Mundialean hartuko du parte / 17



Plazarako estalopea

Etxarriko ferien ondoren hasiko dira parte hartzearen bidez erabakitakoa jasotzen / 7



Lehen sektoreko produktak eraldatzeko gunea haragia zatikatzeko gelarekin hasiko da / 5

Altsasuko auzian behin-behineko espetxealdia zigorraren erdira arte luzatu dute / 9

Ikasle Abertzaleak-en Eskola Ibiltariari AHTren kontrako bizikleta martxak hartuko dio lekukoa / 8

"Ez duzu abusatuko" liburua "testuingurua ulertzeko da, ez da elizari egurra emateko liburua" / 2-3

Josu Etxeberria eta Igor Arrieta Nafarroako Erlojupeko txapeldunak / 19

Beñat Katarain Euskal Mendi Lasterketen Selektzioarekin arituko da / 20

Erriberriko Antzerki Jaialdian aritu da Elur Olabide aktore altsasuarra, Antzerki Eskola taldearekin / 23



Etxarrengo, Bakaikuko eta Olatzagutiko festek eskaintza zabala dute asteburuan / 11-12

"Testuingurua ulertzeko da, ez elizari egurra emateko"

ALBERTO BARANDIARAN AMILLANO KAZETARIA ETA IDAZLEA

Ez duzu abusatuko. Pederastia kasuak Euskal Herriko elizan (2007, Elkar) liburua azaro akaberan aurkeztu zuten Iñigo Astizek, Miren Rubiok eta Alberto Barandiaranek.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Liburuaren akuilua "Spotlight" filma da. AEBetako pederastia kasuen inguruko kazetaritza ikerketari buruzkoa. Filmak Berria egunkarian zure artikulu bat argitaratzea ekarri zuen. Idatzi hartan, dagoeneko, "min" bat azaleratu zenuen.

Filma ikusi ondoren, handik astebetera edo, artikulu bat idatzi nuen, justu film horri Oscar saria eman eta biharamunean. Nik Irungo La Sallen hango irakasle batekin, anaia Valerierekin, bizitako esperientzia bat kontatzen nuen. Halako ikastetxe erlijioso askotan bezala, eta gure belaunaldiko jendearen artean maiz entzundako eta bizitako gauza bat bezala, oso garbia ez zen pertsona bat, gurekin abusu psikologikoaren muga ibili zen behin baino gehiagotan. Nik hori pixka bat kontatu nuen artikulu hartan. Eta handik sortu zen liburua egiteko ideia. Hor prozesu bat sortu zen, luzea, bi urte edo iraun zuena. Min hartatik. Nik gaztetan, 13 urterekin-edo bizitako esperientzia hura inoiz ahaztu ez zaidana. Bereziki traumatikoa.

Urteetan isildutako mina da?

Ez, ez dut uste. Hura gure etxean handik urte batzuetara jakin zuten. Behintzat nik kontatzeko adorea izan nuen. Baina nire inguruan jendeak bazekien. Ez beharbada hain esplizituki, baina ez da gauza bat kontatu ezin izan dudana, ez. Kontatu izan dut. Sekula ez nuen idatzi. Gogoratzen naiz idatzi nuenean, jende askok, nire ingurukoak ere, azaldu ziren, ez zekitelak... **13 urterekin gertatu zitzaizuna kontatzen duzun artikulu horrekin zabaltzen da liburua. Eta bidea egiten hasten zarete, lehenengo, gauzak testuinguruan jartzen.**

Lehen kapitulua neuk sinatutakoa da. Hor kontatzen dut Irunen, La Sallen, apaiz bat zegoela guri eskua sartzen ziguna, tutoretzetan deseroso sentiarazten gintuena. Eta, gero etxe batera eraman gintuena eta han halako arrisku egoera nabarmen batean egon ginen. Hori *Spotlight* filmean ere kontatzen da. Hori munduko abusu kasu guztietan gertatzen da. Beti dago botere egoera bat. Pertsona bat gazteez aprobetxatzen dena. Eta apro-

betxatzen du momentu hori abusatzeko. Testuinguru hura garrantzitsua zen ondoren zetorren guztia kontatzeko. Hau beti gertatu da, aspaldiko kontuak dira, inoiz ez zaio aurre egin eta merezi du kontatzea. Hor hasten gara Euskal Herrian izan diren beste hainbat kasurekin: Donostiako Mendizabal bikario nagusi ohiarena, Ondarroan eta beste toki batzuetan gertatutako abusuak... Ez genuen etengabeko kontaketa bat egin nahi. Baizik eta hori esplikatzen saiatzea. Zergatik gertatzen diren gauza hauek, zer egiten den horrelakoetan, nola jokatu duen elizak, nola jokatu duen gizarteak hainbat tokitan eta hainbat gairitan. Liburuaren ideia hori da.

Elizan zer testuinguru izan zen halako kasuak izateko?

Ez dakit iraganean hitz eginen nukeen. Pentsatu nahi dut gaur egun gauzak hobeki kudeatzen dituztela. Orokorrean testuingurua botere egoera bat da. Hau da, eliza dago, kasu honetan eliza katolikoa. Oso erakunde prestigiotsua, gizartean botere

handia duena. Eta harreman zuzena jende gaztearekin. Halaber, erreprimutako jende asko dago, apaizak eta ordenetako jendea. Batez ere botere egoera. Beti errepikatzen den patroia da: pertsona batek abusatzen duenean, kasu honetan, gazteez edo umez, eta umea ez da gai hori salatzeke. Ez dauka baliabiderik, ez indarririk. Isiltasuna dator, gehienez ere familia giroan esaten du. Eta familiak hasieran ez dio sinisten, edo sinisten badio estaltzen saiatzen da. Eta elizaren aurrean salatzea iristen bada, eliza ukatzen saiatzen da lehenik, gero ezkututzen. Eta azken-azken neurri gisa apaiza hori beste toki batera mugitzen du elizak. Gehienez ere inguruko toki batera. Salaketa larria izan baldin bada atzerrira edo, Hego Amerikara, Afrikara edo Espainiako beste toki batzuetara. Eta handik urte batzuetara, normalean, bueltatzen da; haien barneko zigor hori, bizpahiru urtekoa izan daitekeena, bukatuta.

Hori izaten da patroia eliza katolikoan. Ez dut esaten ez Euskal Herrian, ez Espainian, ez Europan; eliza katolikoak orokorrean horrela jokutzen du. Horrek pentsarazten du baze goela jokabide zehatz bat, arautua, pauso horiek ematen dituen: lehendabizi ukazioa, gero barkamena eskatzea modu pribatuan eta, hirugarrena, barne zigorra. Inoiz ez da publiko egiten. Inoiz ez da neurri eraginkorrik hartzen hori ez gertatzeko; ez dago prestakuntzarik, ez dago inolako barne zigorrik, ez dago gazteendako, txikiendako tratamendu berezirik...

Hori gertatu da, esan dezakegu, Bostonen (AEB) Boston Globe egunkaria ikertzen hasten den eta salatzen duen arte. Sa-

"INOIZ EZ DA NEURRI ERAGINKORRIK HARTZEN ABUSUAK EZ GERTATZEKO; PREBENTZIOA..."

laketa hori hain handia izan zen. Hain ongi kontatua, hain zabala, zer, azkenean, AEBetan sekulako eskandalua bihurtu zen. Beharbada ez da astakeria esatea, Aita Santuaren ondoren botere gehien zuen kardinala kargutik kentzea ekarri zuen. AEBetatik beste toki batzuetara zabaldu zen, mundu mailako arazoa bihurtu zen arte. 2003 urteaz hitz egiten ari gara. Alegia, urtetan guztia isildu egin da elizaren barruan. Hori da patroia nagusia eta orokorra.

Berdin du AEBetan edo Francoren diktadurapean gertatu izana, ezta?

Bai, garai guztietan eta testuinguru guztietan. Hemen eliza katolikoaz kontatzen dugu, gure ingurua hori delako, baina ematen du beste erlijio batzuetan ere gertatzen dela. Eta hori ere egia da, ez bakarrik elizaren inguruan. Hori beste erakunde batzuetan ere gertatzen da, eskoletan... Botere egoera nabarmena dagoen inguruetan gertatzen da.

Boston Globeren ikerketa 2003an. "Spotlight" filma 2015ean. Egoera aldatu da? Gizartea aldatu da? Eliza aldatu da orduetik?

Nik uste dut aldatu dela elizaz kontu honetan gizarteak duen pertzepzioa. Jendea ohartu da ez direla txikikeriak, gauza zabalak direla, sistemikoak. Nik uste hori nabari dela, hor arrakala handi bat ireki da. Elizaren jokaeraz, ematen du Aita Santu honekin eta aurrekoarekin gauzak aldatzen hasi zirela. Beste jarrera bat dago. Nahiz eta zailtasun handiak dauden. Erroman gauza hauek salatzeke batzorde handi bat osatu da. (...) Aita Santuak berak aitortu behar izan du, ez daukala baliabiderik honi aurre egiteko eta erresistentzia handiak daude. Kontuan hartu behar da hain hierarkizatua dagoen eliza batean, erakunde batean, gotzainek gaur egun sekulako boterea daukela oraindik.

Gizartean ikuspegia aldatu da. Baina, egia da ere Donostian Mendizabalen kasua lehertu zenean, guk mutiko baten tes-



www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Iñigo Astiz, Miren Rubio eta Alberto Barandiaran liburuaren aurkezpen egunean, azaroan. ELKAR

tigantza argitaratu genuela. Eliza barruko jende fededunaren erreakzioa ere oso-oso harrigarria izan zen: beti mezularien kontra, sentsazionalismoa, horrikeria leporatuz... zer eta biktima bati ahotsa emateagatik. Oraindik gauza asko aldatu behar dira hor ere, fededunen artean, pixka bat gauza horiei aurre egiteko.

Liburuaren zati handi batean fededunei eta elizako hierarkiari ahotsa ematen zaie.

Testuingurua ulertzeko liburu da, ez da elizari egurra emateko liburu. Ni sinistuta nago elizak honi aurre egiten ez baldin badio, gaur egun daukan gainbehera, bai morala, bai botere aldekoa, ez dela geldituko. Liburuan eliza barruko jende asko dago hizketan. Elizaren kontrako jende deklaratu bakar bat ere ez dugu elkarrizketatu. Edo biktimak, edo elizarekin harremana izan dutenak, edo eliza barruko jendea.

Euskal Herria da markoa eta alde-raketa egiten duzue Iparraldearen eta Hegoaldearen artean. Aldea badago.

Iparralden topatu dugu hemen behin ere opatu ez dugun zerbait: Baionako gotzaindegiaren menpeko biktimak artatzeko halako zentro bat. Pertsona bat dago eskumen hori duena. Deiak jasotzen ditu, jendearekin egon, jendea entzun, harrera egin...

Oso eliza barruko zerbait da. Ez du baliabiderik beste ezertarako. Ez dago jende prestatua. Baina bai borondate oneko jendea, behintzat onartzen duena hau gertatzen dela eta onartzen duena erantzuna eman behar zaio. Hori, behintzat, badago. Hego Euskal Herrian ez dago horrelakorik; ez da sortu inolako erakunderik, ez batzorderik, ezta "etor zaitezte nigana" esan ere. Hemen badago jendea, gure liburuan agertzen dena, oso pasarte gogorrek bizi izan dituenak, eta haiek esaten dute: gu saiatu gara gotzainarekin hitz egiten eta ez gara berarekin ezta elkar-tu ere egin. Badago alde handi samar bat.

Iparraldea Hegoalderako eredia izan daiteke?

Ez dakit hangoa ere eredia den. Hemen problema da ikerketa lan sakon bat falta dela. Eta hori beste toki batzuetan egin da: AEBetan, Alemanian, Australian, Irlandan... Batzorde bat osatu eta ikertu benetan izan diren abusu kasuak. Eta ehunka agertzen dira, milaka batzuetan. Gertatu dena ikertu, izena jarri, zenbakia jarri.

Abusu horien kasuan, bi epai-sistema daude.

Saiatu gara azaltzen zer den zuzenbide kanonikoa. Zuzenbide berezi bat, elizari dagokiona. Militarren zuzenbidea bezala, ohiko justiziatik kanpo dago.

Beste zuzenbide mota bat da. Elizako jendea zuzenbide kanonikoren arabera epaitzen dute. Horren arabera, halako kasuetan, gehienez ere egon daitekeen zigorrak handiena da apaiz bati kargu bat izateko eskubidea kentzea. Ez du parrokiarik, ezin du mezarik eman publikoan... Baina ezin zaio apaiztasuna ukatu. Apaiztasuna, nonbait, jainkoak ematen duen zerbait da eta, orduan, pertsona horrek apaiza izaten segituko luke. Ez dago beste zigor berezirik.

Oso opakoa da. Ez dago jakiterik nor epaitzen duten, zer gertatu den, zer prozesu egon den, zein lege berme egon diren, zer egin den biktimekin, zer aitortu zaion... Oso justizia berezia da, ezagutzen dugun justiziarengandik oso desberdina. Haiek horrekin epaitzen dituzte. Guretako, eta liburuan jartzen dugu, kasu honetan inportantea ez da zigor-justizia. Hau da, pertsona bat kartzelan ez dakit zenbat urte. Ez da hori. Biktimik, normalean, ez dute hori bilatzen. Lehengorutzen duen justizia bilatzen da: konpontzea egindako kaltea, aitor-tzea... Guk elkarrizketatu dugun jende guztiak momenturen batean esaten du: hau esaten dut berri-ro gerta ez dadin; pertsona horrek berriro egin ez dezan; berriro gazteekin egon ez dadin; ez dabila egon meza ematen ezer

gertatu ez balitz bezala. Gauza horiek eskatzen dituzte. Batzuetan zalantza: baina izen-abizenak eman behar dira? Jende askok bai esaten du: izen-abizenak eman behar dira jakiteko pertsona horrek zer egin duen eta berriro egin ez dezan. Hori da lehengoratzeko-justizia esaten dena. Ez zigortzailea. Zuzenbide kanonigoak ez du halako neurririk aurreikusten. Ez du aurreikusten biktimen erreparazioa, edo gazteekin egon den jendearen prestakuntza ez du behin ere aurreikusten. Hori pixka bat azaltzen saiatu gara liburuan. **Zuzenbide kanonikora iritsiko dira kasuak, abusu salaketak ohiko zuzenbidera apenas iristen direlako, ezta?** Ohiko zuzenbidera ez da iristen, zeren biktimak gazteak dira

"PROBLEMA DA IKERKETA LAN SAKON BAT FALTA DELA. HORI BESTE TOKI BATZUETAN EGIN DA"

"NI SINISTUTA NAGO ELIZAK HONI AURRE EGITEN EZ BADIO GAINBEHERA EZ DELA GELDITUKO"

gehienetan, urte batzuk pasata irauungi egiten du eta ohiko epai-leen aurrean ez dago salatzen aukerarik. Hortaz, kasu gehienak epaitu gabe gelditzen dira. Euskal Herrian bada kasu bat, Leioako ikastetxe batean, Gazteluetan, Opus Deiko ikastetxe batean. Epai-keta hori azkenean egiten bada, guk dakigula, Euskal Herrian egiten den bigarren epai-keta izanen da. Ikaragarri atzeratzen ari da. Jada epaitua behar zuen. Zeren eskaera zehatz bat dago. Asko atzeratzen ari da presioak direla eta. Oso zaila izaten da epai-ketara iristea, nahiz eta kasuak ezagunak diren fiskaltzan.

Esan duzu biktimik ez errepikatzen bermea eskatzen dutela. Egoera horretan gaude?

Jendea trebatuago dago, irakasleak eta. Prebentzio neurriak daude eta gizarte giroa desberdina da. (...) Ni zalantzan nago apaizek edo elizako jendeak behar duen prestakuntza hori duen, jaso duen eta nahikoa prestatuta dagoen kasu hauek kudeatzeko. (...)

Gizartea neurri batean aldatu da. Orain abusuak beste testuinguru batzuetan ematen dira. Plaza publikoan behar bada. (...) Jende gehiago ateratzen delako eta sare sozialetan ere abusu asko gertatzen dira, mota askotakoak. Badago bide errazagoa komunikatzeko, gauzak errazago zabaltzeko... Bullynga oso gai konplexua da eta askotan abusuarekin lotuta dago.

Askotan, ibili eta buelta, azkenean konturatzen zara boterea beti dagoela. Badaude esparru batzuk non jendeak oraindik agintekeriaz baliatzen den, bilatzen dituen beste toki batzuk eta askotan errepikatzen diren patrioiak beste modu batez. Elizako ikastetxeetan lehen baino gehiago? Ez dut uste. Orokorrean lehen baino abusu gutxiago daudela? Ez dut uste.

Azaroan argitaratu zenutenetik, liburuak zein bide egin du?

Prentsan-eta asko atera da. Asko zabaldu da eta, alde horretatik, kontent gaude. (...) Iruditzen zaigu ez duela sortu elizaren aldetik halako erreakzio bat, halako adierazpen bat egitea, halako neurriren batzuk jartzea edo zerbait. Ez da etorri. Eta ez da horrela. Eta hori tamalgarria da. Hori delako elkarrizketatu dugun jendeak eskatzen zuena.

Osorik: www.guaixe.eus



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Gustuko musika ez duenean, entzungor

Deusen truke Sakanan txikizioa egingen lukeen Abiadura Handiko Trenaren proiektua dela eta, Nafarroako Gobernuko Manu Ayerdi ekonomia kontseilariak orain dela gutxi arte esaten zuen proiektu horrek "ekonomiaren garapena", "lurraldearen kohesioa" eta "ekologia" sustatzen zituela. Baina, Europako Kontuen Auzitegiak (zergapekoen defendatzaileak) esan duenean AHT proiektu horiek porrot ekonomiko itzela direla, plangintzarik gabe eraikiak eta politikoki nahiera baliatu direla; orain, Manu Ayerdik, Jaurlaritzako Tapia kontseilariaren hitzak loro gisa errepikatuz, esaten du proiektu hori "estrategikoa" dela. Nola? Estrategikoa, Europako Kontuen Auzitegiak hori esan eta gero? Zur eta lur!

Hiztegian 'estrategikoa' hitzaren esanahiak begiratuta, "leku, jarrera, ... zerbaiten garapenerako garrantzi bereziko". Bada, EKA-k esan duenez, ez ekonomia, ez lurraldetasuna eta ez ekologia, ez ditu garatzen; hortaz, beste aukera, "arma bati buruz: izugarriko txikizioa eragiteko gaitasuna, bere helburua jotzen duenean". Arraioa! Ez nuen halakorik espero, eta ez nuke

EZ NUKE PENTSATU NAHI MANU AYERDI GERRA KLABEAN ARI DENIK SAKANAREN AURKA

litzaioke Sakanari proiektu horrek aurrera egingen balu, alegia, 'tragikoa'. Horregatik, konbentziturik nago Ayerdik ez zuela 'estrategikoa' esan nahi, baizik eta 'tragikoa'. Eta hori horrela ez bada, beharbada, Sakanatik begiratuta, kontseilari horren dimisioa eskatzen hasteko tenorea ere izanen da.

Beno, nolana ere, Guaixek bere oporraldia izateko unea aurki ailegatu den honetan, borroka ez du etenik eta, igande honetan, bada txirrindula-martxa AHT proiektuaren aurka, Irurtzundik Altsasura. Animatu, eta, Sakanarako, Tren Soziala garapena behar duena, ez dadila AHTren tragedia bihurtu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNAK

Manolo Campos Castresanaren oroitzapenetan

JOSE LUIS ERDOZIA

Joan den garilaren 20an joan zaigu, betiko, Manolo. Eta betiko azpimaratu nahi dut, badirelako dagoeneko hamarkada pare bat noizbehinka mugak jartzan zizkiola bere bizitzari, heriotzari berari ere barre egin nahi izanen balio bezala, batean bost, bestean hiru, oraingoan bi eta geroxeagokoa lau edo bat zirela bere konpainiarekin gozatzeko geratzen zitzaizkigun urteak. Ia berrogei urte gaixotasun larri, mingarri eta mugikortasuna asko mugatzen duten horietako batek bere gorputza mendean harturik. Bai, bere gorputza bai, ez hala ere oso-osorik, baina inola ere ez bizitzeko gogoia eta herri honen aldarrikapenekiko konpromisoa.

Familian "itsasargia" eta lagun taldean animatzaile eta "saltsetako" zirikatzaile. Gure herriarekiko konpromisoari dagokionez, ez zion uko egin herriko alkate izateko eskaerari. Gehiengo lortu zuen hauteskundeetan ezker abertzalearen zerrendaburu izanik eta buru-belarri aritu zen udalaren eguneroko kudeaketan eta abertzaleon gainerako aldarrikapenak sustatuz: euskara, ikurriña, presoak... Hiru urtez, baina, izan zen Etxarri Aranazko alkate, herriak lau urterako aukeratu bazuen ere. Ez zioten epaile espainiarrek agintaldia betetzen utzi, alkate moduan intsumisioen defentsan hartu

zituena erabakiak zirela eta. Kargu publikorako ezgaitu zuten legealdiko azken urtean eta "alkate intsumiso" bihurtu zuten. Hala izan zen, bai, Manolo, Etxarri Aranazko "alkate intsumisioa", baina ez bakarrik arlo politikoan, ezen intsumisiorik handiena, ia berrogei urtean gorputza era oso bortitzean erasotzen aritu zitzaion gaixotasunari erakutsi baitzion Manolok. Ez zuen etsi inoiz oinazearen aurrean.

Betiko joan zaigula esaten nuen hasieran eta hala da, ez da gure artean era fisikoan atzera berriz agertuko. Ezagutu dugunon memorian, ordea, hortxe egonen da bizi-bizirik, haren eginak eta izana ez ditugu ahaztuko eta. Manolo, betiko gure oroimenean!

Manolo Campos, herriaren alkatea

AMAIA ERDOZIA, JUAN KRUZ ALDASORO, ARITZ IGOA, IRAITZ GOÑI ETA ANDER MUÑOZ

ETXARRI ARANAZKO SORTU

"Alkaterik onena, herria". Honatx Herri Batasunak herrigintzaz zuen ikuspegia. Transizioak ez zuen demokratizaziorik ekarri udaletara. Eredua bertikalista zen, herritarren partehartzea murriztuz politiko profesionalak jainkotzen zituena, ordezkariak eta ustelkeria ezaugarri nagusi zituena. HBk bestelako eredu defendatzen zuen. Herritarren behar hurbilenak hobekien ezagutzen zituen erakundea izanik, herritarren eskura egon behar zen tresna izan behar zuen udalak. Funtzio garrantzitsua jokatu behar

zuten ere Euskal Herriaren eraikuntzan: adibidez, 76. urtean Bergaran eraturako Alkateen Taldea, UEMA, Eudima, edo Udalbiltza bera.

Udalgintza eredu honen protagonistak milaka herritar militante anonimo izan dira. Izen batzuk, ordea, larruazalean grabatuta geratu zaizkigu beren karismagatik. Etxarrin Tomas Huizi, Patxi Karasatorre eta aste honetan zendu den Manolo Campos izan dira. Manolo herritik sortutako alkatea zen: xumea, bizitzaren eskolan hezia, pentsaera guzietako herritarrekin konektatzeko dohaina zuena. Herrian utzitako aztarna sakona izan da. Garrantzitsua ere Euskal Herriari egindako ekarpena: intsumisio mugimendu zabala babestu zuten alkateen erreferentia. Horregatik kargugabetu zuten, armadari mutilen zerrendak ez bidaltzeagatik. 1991. urtean, Manolo alkate zela Etxarri Aranatzen abiatu zen Independentziaren aldeko Udalen ekimena. HB eta EAko hautetsiak ziren aitzindari indar abertzaleen arteko harremana gaiztotua zegoen garaian. Ekimen hark hazia jarri zuen independentisten elkarlanerako, azken urteetan loratu dena: Independentziaren inguruko herri galdeketak (Etxarrin egin zen lehena 2014an); EH Bildu plataformaren beraren gorputza...

Uztailaren 29an, eguerdiko ordu batean Manolori agur ekitaldia egingen dugu Etxarri Aranatzen. Gonbidatuak zaudete.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martínez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazta

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Zatikatzete gela, proiektu zabal baten lehen pausoa

Lehen sektoreko ekoizle txikiek bere produktuak eraldatu eta euren ustiapenei bideragarritasuna emateko eraldaketa gune bat egingen da. Ibiltzen ikasteko, haragia zatikatze eta hari dagokion balioa emateko zatikatze gela egingen da aurten

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoaren aurtengo lehentasunetako bat Eraldaketa Gunea da. Sakanako Garapen Agentziako Aintzane Iriberrri Berrostegetak azaldu digunez, "abeltzain eta nekazariak euren produktuak banaka eraldatu ezin dituztenez taldeka egitea izan daiteke aukera eta, horrela, esnekiak, marmeladak, haragia edo dena delakoa merkaturatu daiteke". Sakanako Plan Estrategikoaren elikadura atalaren bitartez, lehen sektoreari bultzada eman nahi zaio horrela.

Sakanako Eraldaketa Gunearen lehen fasea zatikatze gela izanen da. Etxarri Aranatzeko eraikiko dute, Zumurdiñeta industrialdean, hiltegiaren iparraldeko hormari itsatsia. 84,15 metro karratu izanen ditu eraikinak eta haietatik 70,75 izanen dira erabilgarriak, horrela banatuko direnak: harrera- eta bidaltze-gunea (9,25 m²), biltegitratze hozkailua (19,15 m²), bukatutako edo ontziratutako produktuen hozkailua (12,7 m²), zatikatze gela (17,85 m²), izozkailua (9,15 m²) eta azkar izozteko makina (2,65 m²).

Gune berria hiltegiaren osagarri izanen da, baina independenteke erabiltzeko aukera izanen da.



Hiltegiaren eskuinaldean jasoko da zatikatze gela.

nen da. "Toki egokia zela iruditzen zitzaigun, hiltegian hiltzen diren animaliak eraldatze zentrorra eraman daitezkeelako. Baina animalia batzuk kanpotik ekarriko dituzte, esaterako, txerriak, Etxarri Aranazko hiltegian ezin baitira hil". Hala azaldu digu Begoña Goikoetxea Zabaletak, Belardiko kideak. Hiltegia kudeatzen duen kooperatibak bere azpiegiturak utzi ditu. Horrela, zatikatze gelak behar beharrezkoa duen osasun-zigilua lortuko du. Osasun-erregistroa duenez, obra simple bat da eta

horrek epeak asko azkartzen ditu. Pauso horiek SGAK koordinatu ditu. Bitartean ekoizle txikiak, hiltegiako kooperatibetak, udalak eta SGAK kudeaketa plana zehaztuko dute.

Etxarri Aranazko Udalak lurrak utzi eta lanak egiteko deialdia egin berri du. Interesatuak euren eskaintzak agorritaren 9ko 14:00ak arte aurkeztu ditzakete (festengatik udaletxea 6tik 8ra itxita izanen da). Lanek 200.000 euroko aurrekontua dute eta bere osotasunean Nafarroako Gobernuak finantzatuko du.

"Zatikatzete gunearen erabilera zehaztutako ereduak markatzen du"

ARITZ GANBOA DE MIGEL BELARDI EKOIZLE ELKARTEKO KIDEA

Zergatik behar da halako zatikatze gela bat?

Gaur egun bai osasun neurriengatik, bai materialen kostuengatik, oso zaila da ekoizle txikiek halako eraldaketa guneak amortizatu ahal izatea. Beraz, ekoizleek euren produktuekiko daukaten kontrola galdu egiten dute. Ondorioz, lehengaiak ekoizten ditugu, baina haiei ezin diegu balio erantsia eman. Merkatuak jartzen dituen prezioak ez dira nahikoak jardura hauek errentagarriak izateko. Haragia kudeatzeko zerbaiten beharra behar genuen. Arkumea duela 35 urteko prezio berean pagatzen ari dira.

Zer egingen da zatikatze gunean?

Traktore-efektua egingen duen gunetxo bat izanen da. Hiru alorretan emanen du irtenbidea. Bat, ekoizle txikiek duten eta errentagarritasunik ematen ez dien produktu bati, haragiari, errentagarritasuna emanen lioke. Bigarrenik, harategietan produktu hori harakinendako



ARTXIBOIA

modu errentagarriagoan egonen litzateke. Hirugarrenik, lortuko genuke kontsumitzaileak izanen duela bide bat produktu horiek ezagutzeko, berme guztiekin erosteko.

Zeinek erabiliko du?

Irekia dago. Baina ekoizle txiki eta jasagarriek sortzen dituzten haragi produktuei bideragarritasuna eta errentagarritasuna emateko da. Eredua zehaztuta dago. Bi aukera daude. Bai eredu horretan pausok ematen ari direnei erantzutea. Bestela, eredu horretan ez bazaude, baina norabide horretan pausok ematen hasi nahi baduzu, orduan aukera izanen duzu. Gainera, zu proiektu bat martxan jartzea pentsatzen ari bazara, azpiegitura hori izanen duzu zure proiektuari jasagarritasuna eta errentagarritasuna eman ahal izateko. Orain erronka kudeaketa plana egitea da.

Noizko izanen da erabilgarri?

Berez, eraikina azarorako egina beharko luke. Horrek ez du esan nahi martxan egon beharko duenik.

Zatikatzete gela hori lehen fasea litzateke?

Proiektu orokor guztiarekin hasi beharrean esperientzia txikiago batekin hasiko gara, gaur, Sakanan pragmatikoena dena, haragiari lotua. Baina bide horretatik eraldaketa gune orokor bat egitera iritsi nahi dugu. Eta zer da hori? Baserritarren eguneroko lanetik sortzen diren produktuei irteera errentagarria emateko gunea da. Esaterako, barazkietan ontziratzea, ezta edo marmelada egitea...


Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Ekhi Congil Munduko Monoziklo Txapelketara doa
- Itziar Nazabalen Marokoko egonaldiaz eta Kale Arteaz
- Aritz Ganboa de Migelekin zatikatze guneaz

Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE

Haur gehiago Aralarko aingeruaren lagun egin dira

50 haur aurkeztu zizkieten Aralarko aingeruari igandean horretarako propio prestatutako ekitaldian

SAKANA

Aralarko santutegian elizkizun berezia izan zen igandekoa. Fedunek euren seme-alabak edo ilobak Aralarko aingeruari aurkezteko eguna zen. Belaunaldi berriek santutegiarekin eta ber-

tako aingeruarekin harremana sustatzeko ekimen hori Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren kofradiak antolatu zuen. Akaberan bildutako guztiek aingeruaren irudia gurtzeko aukera izan zuten.



Umea Mikel Garziandiak eusten duen Aralarko aingeruaren irudia gurtzen. N. MAZKIARAN

Aurretik izena emanda zeuden haurrek euren izen-abizenak zituen pergaminoa jaso zuten. Haietan irakur daitekeenez, gurasoek txikia Aralarko aingeruari aurkezte diote bizi guztirako babes eskatzeko eta, horregatik, Aralarko Kofradiak San Migel goiaingeruaren lagun izendatzen du. "Mikel gurea zaindu betirako zure adiskidea" irakur daiteke pergaminoan. Aurkezpena aurkeztu zirenek bi aste barru jasoko dute zuzenean.

Nafarroa Oinezeko Birziklatze lehiaketan lehenak

Iñigo Aritza ikastolako ikasle talde batek Nafarroa Oinezeko birziklatzeari buruzko lehiaketa irabazi du

SAKANA



Alaine, Igarki, Oihan eta Bidane osatutako taldea izan da saritua. Haiendako izan da Lehen Hezkuntzako 1-3 mailakoen saria eta Iruñean

dagoen Oinez Txokoa jaso zuten saria igandean.

Iñigo Aritza Ikastola aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen ari da. Horretarako, besteak beste, Ingurumen Batzordea sortu du. Hark, haurrei eta nerabeei zu-

zendutako lehiaketa antolatu du, *Entzun nola Birziklatzen dudun* leloa zuena. Lehiaketa horren helburua zen teknologiaren erabilera arduratsua, euskararen erabilera aisia, jasangarritasuna eta birziklatzea sustatzea.

Nafarroako ikastoletako LHko eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa zen. Parte-hartzaileek, bakarka edo taldeka, birziklatutako materialak erabiliz jostailu bat sortu behar zuten eta hura bideoan jaso.



Nafarroa Oinez lehiaketan saritutakoek igandean jaso zuten saria.

HARA ZER DIEN

Botikak eta gidatzea

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak botikak hartu eta gidatzearen inguruan kontuan izan beharrekoak azaltzen dizkigu. Izan ere, badaude gure gidatzeko moduan eragin dezaketen hainbat faktore: alkohola eta bestelako drogak, logura, gure aldarrea... Horrek guztiak gidatzerakoan eragin dezake, esaterako, erreakzionatzeko prest ez egotea eta baita gainontzeko segurtasunean eragin dezake ere.

Badaude gure gidatzeko moduan eragin dezaketen beste sustantzia batzuk: botikak. Toxikologiako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, istripuetan hildakoen autopsietan ikus daiteke gidarien %21ek eta oinezkoen %31k psikofarmakoetan positibo eman zutela.

Botikek gure egoera fisikoan eta mentalean eragin dezakete. Gure gorputzean dituzten eraginak logura sortzea, gure erre-

flexuen murrizketa, eta erreazio denbora luzatzea dira. Eta eragin horiek guztiak badute bere garrantzia. Egia da eragin horiek gure adin eta egoera fisikoaren arabera aldatzen direla. Baina nahiz eta botikek ez duten berdin eragiten gazteengan edo adinekoengan, ezin ditugu bere efektuak alde batera utzi. Botiken erabilera-orrian ikus daiteke gure gidatzeko gaitasunean eragingo duten ala ez.

Gidatzean eragina duten botikak egunero kontsumitzen dituztenen %80a ez da horren jakitun izaten. Hauek dira gidatzeko garaian kontuan hartu beharreko botika motak:

Hipnotikoak: loaren arazoei eta loezinari aurre egiteko erabiltzen diren botikak dira. Loa eragingo dute, baina baita atentzioaren eta erreazio ahalmena murriztu ere. Beraz, halako botikak hartuz gero, beste batek gidatzea edo beste garraio mota bat erabiltzea da hobetena.

Antipsikotikoak: botika hauek nerbio-sistema zentrallean dute eragina eta normalean eskizofrenia edo beste egoera psikotiko batzuk pairatzen dituzten

pertsonak tratatzeko erabili ohi dira, baita demenziak, bipolar gorabeherak... ere. Botika hauek loa eragiteaz gain, zorabioak, nekea, urduritasuna ere eragin dezakete; gidatzeko batere lagungarriak ez diren osagaiak.

Migrainen aurkakoak: migrainarako pilulek loa eta zorabioak eragin ditzakete eta pertsona ahulago egotera eramaten dezakete.

Antiepileptikoak: hauek alboondorio gehien sortzen dituzten botikak dira. Nekea, logura, zorabioak eta ahuldura sentazioa sortzeaz gain, ikusmenean ere eragin dezakete, lausoa bihurtzeraino.

Anstihistaminikoak: alergietarako diren botika hauek asko erabiltzen dira eta askok alboondorioetan gehiegi pentsatu gabe hartzen dituzte. Baina logura sortzen dutela, erreazio gaitasuna murriztu eta ikusmen lausoa sortu dezaketela kontuan izan behar da.

Antidepressiboak: urduritasuna, antsietatea, logura, koordinazioan aldaketak eta ikusmen lausoa eragin ditzakete. Beraz, gidatzeko modu %100 segurua erekin bateraezinak dira.

Oinez Basoa ekimena Altsasuko Usolarrain eremuan egingen dute

Zuhaitzak landatu, sagu zaharrendako kabi-kutzak jarri eta Txuspo Poyoren Zuhaitz-etxea eraberrituko dute



Aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen duen Iñigo Aritza Ikastolak eta Altsasuko Udalak Oinez Basoa ekimena Usolarrain eremuan garatzeko hitzarmena sinatu dute. Oinez Basoa ekimenaren zortzigarren edizioa izanen da aurtengoa. Ekimenaren helburua Nafarroa Oinez ospatzen den herrietan zuhaitzak landatzea da. Aurtengo edizioan, gainera, sagu zaharrendako kabi-kutzak jarriko dituzte eta Txuspo Poyo artista altsasuarraren *Zuhaitz etxea* eraberrituko dute.

Altsasuko Usolarrain eremua balio handiko ingurunea da herriarrendako. Atsedean hartzeko espazioa da. "Naturaren kontserbazioarekin eta ingurumen hezkuntzarekin bateragarria izateko aukera ematen du" ere, Na-

farroa Oinezetik jakinarazi dutenez. Hortaz, Altsasuko Udalen laguntzaz hainbat arlo jorratuko ditu aurtengo ekimenak. Gainera, basoaren interpretaziorako kartelak jarriko dituzte ere "bertakoek zein bisitariak uler eta ikas dezaten inguruaren zaintzak duen garrantziaz".

Usolarrainen egingen den proiektua garatzeko Iñigo Aritza Ikastolak eta Altsasuko Udalak hitzarmena sinatu dute. Javier Ollo Altsasuko alkateak, Mikel Asiain Nafarroako Ikastolen Elkarte presidentek eta Eneida Carreño Ikastolako lehendakariak sinatu zuten akordioa.

2008. urtean sortu zen Oinez Basoa ekimena. Harrezkero zazpi baso sortu dira: Arbizu, Tafalla, Zangoza, Tuteria, Baztan, Andosilla-Sartaguda eta Lesaka. Guztira, 47.000 zuhaitz baino gehiago zuhaitz landatu dira.

Estalopeko proiektua egina

350 metro karratu izanen ditu. Metalezko zutabeek egurrezko egiturari eutsiko diote. Kioskoak estalopearekin bat egingen du eta gututz itxuraldatuko da. Udalak batzarretan eta hausnarketa prozesuetan parte hartu dutenei eskerrak eman dizkie

ETXARRI ARANATZ

Lastailaren 6an eta 7an ospatuko dira feriak Etxarri Aranatzen. Gaur egungo kioskoan egingen den azken dantzaldia izanen da hori, feriak pasata plazan estalopea egiteko lanak hasiko baitira. Orduan hasiko da errealtatea bihurtzen urtebete iraun duen parte-hartze prozesuan makina bat etxarriarrek irudikatatu dutena.

Estalope baten beharra aspaldiko aldarrikapena zen Etxarri Aranatzen. Izan ere, euria egiten duenetan "urtean zehar hainbat jarduera eta ekitaldi bertan behera uzten dira, eta horrek ahalegin xahutze eta diru galera handia dakar, eta azken momentura arte eguraldiaren menpe egon beharra", esan digu Eneka Maiz Ulaier alkateak. Eta gaineratu duenez, "egungo kioskoaren txapelak, duen diseinuatatik, ez du babesten eta euriarrekin kiosko barruko musika tresnak busti egiten dira".

Erabilerek eman dute kokapena

Parte hartze prozesuaren barruan egindako batzarrean erabaki zen estalopea kioskoaren atzeko aldean jartzea, kioskoarekin integratuz. Kioskoaren aurreko aldea, orain arte, libre geldituko da. Kokapena aukeratzekoan plazak dituen lau erabilera hartu zituzten kontuan: kultur programazioa (kontzertuak, antzerkiak, dantzaldiak, kirol probak...), azokak (astelehenerokoa, feriak, Ama Lurra...), erabilera herrikoia (auzateak, bazkariak, egun bereziak, erakusketak...) eta erabilera librea (haurren jolasak, helduak egonean egotea, potea...).

Ezaugarriak

Kioskoak bat egingen du estalopearekin eta teilatu bakar bat

izanen du. Kioskoa barne, guztira 350 m² izanen ditu, ia Lazkoz kaleraino iritsiko da. Hura jasotzeko plaza erdialdeko 12-14 zuhaitz kenduko dituzte, ez, ordea, plazaren aldeetakoak, horrela zuhaitzian integratuta geldituko da. Estalopeari metalezko 10 zutabek eutsiko diote eta kioskoan beste 6 izanen dira. Estalpe guztiaren egitura egurrezkoa izanen da. Zurak baso kudeaketa jasangarriko jatorriaren ziurtagiria izanen du. Estalopearen altuera zuhaitzen bera izanen da, gutxi gorabehera. Estalopean LED argiak izanen dira eta bere zurezko egiturak akustika hobetzen lagunduko du.

Kioskoak eraldaketa handia izanen du. Ekitaldiak bi aldeetan egiteko aukera nahi da. Normalean udaletxera begira egingen dira, baina euria ari duenean, estalopea begira egingen dira. Horretarako, kioskoari metro erdia kenduko zaio, bai lurrari bai txapelari. Horretaz aparte, kioskoaren diametroa 30 cm handituko dute. Horrela, 50 m² izanen ditu. Horrela, egun musikariendako altuegia izateagatik deserosoa den kioskoa eraldatuko da. Bestalde, kioskoa zurezko listoez forratuta egonen da eta horiek hesiarena egingen dute, inor ez erortzeko. Hesiaren erdialdean, bai aurrean, bai atzean metalezko hesi bat izanen du, materiala kargatu eta deskargatu ahal izateko. Eskailera, berriz, alde batean izanen du.


Lanak 129.000 euroko aurrekontua dute eta diru-laguntzen bidez pagatuko da. Alde batetik, Europako Landa Garapenerako Planeko laguntza dago (Cederna-Garalurren bidez lortua). Bestetik, Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planeko Erabilera Libreko diru-laguntzare-

kin ordaindu nahi du udalak beste zatia.

Parte hartzea

Etxarri Aranazko Udalak plaza hobetzeko parte hartze prozesua martxan jarri zuen joan den urteko otsail akaberan. Etxarriarren iritzia jasotzeko inkesta egin zen lehenik. Ondoren 4 batzar ireki egin dira eta talde teknikoaren aholkularitza izan da. Azken batzarrean, garagarriaren 6an, erabaki zen estalopea non jarri. Prozesuaren emaitza da ere oinezkoendako espazioak zehaztea eta Larreñondoko aparkalekua egitea.


Udaletik jakinarazi dutenez, 125 etxarriarrek erantzun zuten inkesta, batzarretan 83 pertsonak parte hartu zuten eta azken erabakirako idatzizko 70 ekarpen jaso zituzten. Herriko musikariek ekarpenak egin zituzten ere. Alkateak aipamen berezia egin die talde teknikoan parte hartu duten herritarrei eta udal langileei. Maizek esan duenez, "ibildide luzea izan da, baina oso aberatsa, ikuspegi desberdinak uztartuz elkarrekin kontsentsu zabaletara iristeko gai izan garelako".



Estalopea urte akaberarako prest izanen da. UTZITAKOIA

Lizarrusti Parketxea

www.lizarrusti.com



Asteburuko menua | Larunbata gauetan zabalik
Plater konbinatuak eta etxeko hanburesak

Aia auzoa, 2
Lizarrusti (Gi)
T.: 943 582 069
661 433 548
628 305 655



BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta
bigarren eskukoak
SALMENTA**

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**



Martzialatik atera ziren txirrindulariak. @ZABALDI

AHTren kontrako txirrindula martxa Sakanatik pasako da

Sakana Trenaren Alde plataformak ibarrean eginen diren ekintzetan parte hartzeko deia egin du

SAKANA

AHT Gelditu! Elkarlanak Nafarroako Abiadura Handiko tren korridorearen kontrako bizikleta martxa antolatu du. Atzo Martzialatik abiatu zen eta 29an, igandean, Altsasun bukatuko da. Azken etapa, beraz, Irurtzun eta Altsasu artekoa da. Sakana Trenaren Alde plataformak martxan parte hartzeko deia egin du "AHTak Nafarroako korridorearen sortuko dituen kalteak salatzeko".

Trenaren alde

Sakana Trenaren Alde plataformak bat egin du AHTaren aurka egiten ari den bizikleta martxarekin. Sakanan eginen den etapan eta ekimenetan parte hartzeko deia egin du plataformak. "Sakanatik pasatzen dela baliatu nahi dugu eskualdean egungo trenaren hobekuntza eta eguneraketa aldarrikatzeko". Plataformaren iritziz Abiadura Handiko Trena egin beharrean gaur egun dauden azpiegiturak berri behar dira. "Beste bat eraiki gabe".

Bizikleta martxarekin batera AHTaren kontrako hainbat ekimen antolatu dituzte Sakanako hainbat herritan. Bizikleta martxa Irurtzunera 19:00etan iritsiko da eta han afalduko dute txirrindulariek. Ondoren, Mucha Mierda taldearen kontzertua izanen da Barazkigune karpan. Igandean goizean abiatuko dira, eta 12:00etan Etxarri Aranatzeko AHTaren aurkako monolitoa mustuko dute. Iturmendin baz-

kaltzeko geldiunea eginen dute eta Ziordiraino joanen dira.

Ziordian Arabako zutabearekin bat eginen dute. Bertan Amarauna proiektuaren aurkezpena eginen dute ere. Martxa Altsasun amaituko da.

Egitaraua

Garilak 28, larunbata

- **09:30** Iruñeko Maravillas gaztetxetik abiatu Iruñerrian barna aritzeko.
- **16:00** Arazuritik abiatu.
- **19:00** Irurtzun. Afaldu eta kontzertua: Mucha Mierda.

Garilak 29, igandea

- **09:30** Irurtzundik irteera.
- **10:30** Hiriberri.
- **11:00** Uharte Arakil.
- **11:30** Lakuntza.
- **12:00** Etxarri Aranatz. AHTaren aurkako monolitoaren mustutzea.
- **13:00** Bakaiku.
- **13:15** Iturmendi. Bazkaria.
- **15:00** Iturmendi, irteera.
- **15:15** Urdiain.
- **15:45** Olatzagutia.
- **16:00** Ziordia. Arabako zutabearekin bat egitea. Amarauna proiektuaren aurkezpena.
- **17:30** Altsasu.
- **18:00** Akabera ekitaldia.

Altsasun despedituko da Eskola Ibiltaria

Etxarri Aranatz eta Altsasu arteko bidea egin eta azken hitzaldiaren eta tailerren ondoren, musika jaialdiarekin despedituko da Ikasle Abertzaleak-en ekimena. "Treatu, eztabaidatu eta hausnartzeko" helburuak bete dituztela esan digute

ALTSASU

Ikasle Abertzaleak (IA) antolatutako Eskola Ibiltarirako 200 gaztek hartu zuten txartela. Baina bideari gehiagok ekin zioten eta egunak pasa ahala haiekin bat egin dute beste batzuek. Eta, gaur despedida dela, pentsatzeko da askoz ere gehiago elkartuko direla Altsasun.

Eskola Ibiltariak herenegundik gaur arte formatu bera izan du. Goizean herrien arteko ibilaldiak oinez egin dituzte. Eta arratsaldero gai baten inguruko hitzaldia izan dute lehenik. Herenegun sistema kapitalistaren barruan hezkuntzak dituen funtzioez aritu ziren. Atzo, berriz, emakume langileek hezkuntzan jorratzen duten papera izan zuten hizpide. Eta, bukatzeko, gaur hezkuntzako erronka berriak izanen dira. Egutero, 19:00etan, hiruzpalau tailer daude, aukeran, "hainbat gairen inguruan jendea trebatzeko". Bai hitzaldietan, bai tailerretan izena emanda ez zeuden pertsonak ere parte hartzeko aukera zuten.

Elkarrizketa

Nerea Franciscorenak eta Marcela Rodriguezek eman dizkigute ekimenari buruzko azalpenak.

Ikasturtean zehar aldarrikatzen duzuen praktikan jarri nahi duzue?

M. Bai, denetarik dago. Badago urtean zehar egindako borroka batzuen isla. Esperientzia lokaletatik ikasiz deitu dugun taillerra. Bestetik, hitzaldiak daude. Jendea trebatzeko. N. Hausnarketa eta trebatzea da helburuetako bat. Adibidez, gaur hitzaldia izanen da: aurrera begira zer? Hezkuntzako erronka berriei nola aurre egin aztertuko dugu. Aparte aisialdi eskaintza egonen da, jendeak deskantsatzeko eta lasai egiteko. Gauetan kultur eskaintza eta bestelako ekimenak izanen dira. Euskal Herriko gazte guztien



Eskola Ibiltaria Lizarragabengoatik Etxarri Aranatzera bidean. @IABERTZALEAK

arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea nahi dugu. **Auto-antolaketa da? Ikasleek elkarri irakatsiko diozue? Edo adituak etorriko dira saioak ematera?**

N. Batez ere, Ikasle Abertzaleak-eko militanteak dira.

Eskola Ibiltaria Ikasle Abertzaleak-ek nahi duen hezkuntza sistemaren aldarrikapen moduko bat da?

N. Bai horretara begira dago antolatuta. Ikasturtean zehar hainbat aldarrikapen egiten ditugu eta uste dugu udan ere jarraitu behar duela.

IAk behin baino gehiagotan Euskal Eskola Nazionala aldarrikatu du. Nolako litzateke?

M. Bertan landuko diren teoria eta praktikarekin joanen gara eraikitzen. Azken finean egunerokotasunean eraikitzen dugu Euskal Eskola Nazionala. Etor-kizunean zapalkuntzarik gabeko eskola izatea. Euskara ardatz duena.

Eskola Ibiltariko leloa galdera bihurtuta. Zein urratsen marratzu nahi duzue etorkizunean?

N. Honen bidez baldintzak sortu nahi ditugu iraultza prozesuan aurrerapausoak emateko. M. Eta lehen aipatutako Euskal Eskola Nazionala lortzeko.

Eskola ibiltariko egitaraua

Garilak 27, ostirala

- **08:30** Gosaria.
- **09:15** Ibilaldia, Etxarri Aranatz-Altsasu.
- **13:30** Bazkaria.
- **15:30**etik aurrera Erronka berriak, hezkuntza zer? hitzaldia. Tailerrak:
 - Margotzea.
 - Informatika-segurtasuna.
 - Ikasle presoak.
 - Militantzia eredu birpentsatzen.
- **21:00** Kontzertuak, plazan: Kop, Bultz, Nafarroa 1512 eta Droga Purpura. Gaztetxean: Eztanda, Katez, Niri Bortz eta MTR dj.
- **00:30** Ekitaldi nagusia.

Garilak 28, larunbata

- **10:00** Gosaria.
- **11:00** Irteera autobusetan.

Altsasuko auzian beste salbuespen neurri bat

Altsasu Gurasoak salatu duenez, fiskaltzak eskatuta epaimahaiak onartu du auzipetuen behin-behineko espetxealdia zigorraren erdira arte luzatzea. Abokatuek salbuespen neurriaren kontra egin dute

ALTSASU

Azaroaren 14an bi urte beteko dira atxilotu zituztela eta, berez, ordurako Adurrek, Jokinek eta Oihanek kartzelan segitu behar-ko luketen aztertu behar-ko luke epaitegiak. Hala dago legean jasoa. Legedian ere jasoa dago epai bat dagoenean eta hari helegitea jarri bazaio, auzipetuaren behin-behineko espetxealdia zigorraren erdira arte luzatu daitekeela. Fiskalak eskaera egin du eta altsasuarrak epaitu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalako epaitegiak eskaera onartu du. Gauzak horrela gedituko balira, Adurrek, Jokinek eta Oihanek 6 urteko behin-behineko espetxealdia beteko lukete, Iñakik 5 urtekoa eta Aratzek, Jon Anderrek eta Julenek 4 urte eta erdikoa.

Auzipetuetako batzuen abokatu Amaia Izkok esan digunez, "esanguratsua da salbuespen neurri bat azkar, behar ez zenean egitea, eta automatikoki egitea". Izkok azaldu duenez, "legeak ez du betebeharra ezartzen. Ahalbideratu egiten du". Abokatuak azaldu digunez, epaileek "ez dituzte auziaren zirkunstantziak kontuan izan". Auzipetuen defentsek erabakiari helegitea jarri diote. Izkok jakinarazi duenez, "ez gara inoiz iritsiko



Gurasoak Baztanen. Irailera arte ez dute epaiaren inguruko berririk espero.

6 urteko behin-behineko espetxealdira".

Bestalde, epaia egiten ari den bideaz galdetuta, Izkok jakinarazi digu defentsek fiskaltzak jarritako helegitea inpugnatu dutela. Jakina denez, fiskaltzak terrorismoagatik zigorrak ezartzea eskatu zuen. Epaiari jarritako helegiteen inguruan, irailera arte albisterik ez du espero.

Iritzia

Altsasuko Gurasoen iritziz "zigorraren erdia bete arte luzatu nahi zaie behin-behineko espe-

txealdia gure semeei. Fiskaltza hori horrela izan dadin aurreratu da, eta bermatu nahi du. Auzi latzetan, epai irmoaren zain, jende asko kalean dago, ez, ordea, gure semeak".

Azaldu zuten, "gure semealabei ezarritako kautelazko zigorrak salatzen hilabeteak daramatzagu. Behin-behineko espetxealdian ezohiko neurria dela, eta gure semeei zigor gisa aplikatzen ari zaiela esaten". Epaitegiak hartutako erabakia zigor gehigarritzat hartu dute gurasoek.

Irurtzunerako ur sarea berritzen hasi dira

Iribasko iturburutik ura eramaten duen hoditeriaren 3 zati aldatuko dira, 4.671,12 m

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Construcciones Arroyo Esarte SL eta Lakita SA enpresei eman die Iribas eta Irurtzun arteko ur sare nagusiko 3 zatiren konponketa. Aurrenak 93.506,14 euro jasoko ditu lanen truke eta bigarrenak, berriz, 374.024,55. Lanek, guztira, 467.530,69 euroko kostua izanen dute (BEZ kanpo). Joan den astean hasi ziren lanean. Aurreneko zatian, 954,85 metro, Iribasko iturburutik NA-7500 errepidera. Bigarrena Mugiroko 2. eta 3. tunelen artean dago, 1.198,13 metro ordezkatuko dira. Azken tarte Mugiroko hirugarren tunelaren eta San Migeltxoren artekoa da, 2.518,14 metroko zatia aldatuko da.

Ibarreko erakunde presidentea David Oroz Alonsok esan digunez, "lanek irauten duten bitartean Irurtzango ur hornidura bermatuta egonen da. Iribasko iturburutik Urritzako estaziora zuzenean punpatuko da ura eta horrek irurtzundarren ur emaria bermatuko du". Orozek esan digunez, "eguraldiaren arabera, lanek hilabete eta erdi edo bi hilabete iraunen dute". Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza dute lanek.

Ederbideako UGEPS onartu du Nafarroako Gobernuak

Doneztebe eta Irurtzun arteko bizikleta ibilbidea mugaz haraindiko Ederbidea proiektuan dago

ARAKIL / IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak Doneztebe eta Irurtzun arteko bizikleta ibilbidearen Udalez gaindikoa Eragineko Proiektu Sektoriala (UGEPS) onartu zuen herenegungo bileran. Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak lotuko ditu ibilbide horrek. Baina proiektu handiago baten zati ere bada, mugaz haraindiko Ederbidearena. Horren helburua da Iruñea, Donostia eta Baiona lotzea 240 km-ko bizikleta-bidearen bitartez, eta bizikleta erabiltzea sustatzea bai turismo eta aisiarako, bai eguneroko joan-etorrietarako. Etorkizunean Sakana zeharkatuko duen Donejakue bidearekin bat egiten du. Bestalde, Europa guztia zeharkatzen duen Eurovelo ibilbide sarearen zati izanen da.

Gobernuak onartu zuen UGEPS proiektuak 52 km-ko ibilbidea hartzen du eta honako udalerriak zeharkatzen ditu: Doneztebe, Donamaria, Oiz, Urroz, Beintza-Labaien, Saldias, Basaburua, Imotz (Plazaolako bide berdearekin konektatzen du Latasan), Arakil eta Irurtzun. Ibilbidearen % 77an baino gehiago eguneko 1.000 ibilgailu baino gutxiago pasatzen dira, gainerakoa pistak eta bideak dira.

Udaletxea obretan

Joan den astean hasi ziren Altsasuko udaletxean igogailua jartzeko eta komunak egokitzeko lanak. Teilatua ere konponduko da. Udalak herenegun erabakitakoen artean daude: Txiki Polita kaleko zorua eta Zelai kaleko zebrabide goratuak konpontzea, herrian barna hainbat konponketa lan egitea, karpa mugikorra erostea eta lortiarako soinu ekipoa erostea.



BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astelehene ostiralera
**Eguneko menua
9€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia - Jatetxea

JATETXEA - RESTAURANTE • KAIKO • BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com



Txirrindulariak Altsasuko Foru plazara iristen.

"Gizarte zibila aktibo eta konprometitu behar dugu"

INAXIO OIARTZABAL SAREKO KIDEA

Orain Presoak Tour bizikleta martxa Sakanatik pasa zen

SAKANA

Zergatik bizikleta martxa?

Bai armagabetea, bai Frantziako espetxe politikaren aldaketa lortzeko gizarte zibilaren parte hartzea behar beharrezkoa izan da. Espainiak espetxe politika aldatzeko gizarte aktiboa, konprometitu eta elkarlanean ariko dena behar dugu.

Espetxe politikan zein aldaketa izan beharko liriteke?

Lau puntu oso garrantzitsu azaltzen dira. Urrunketa politikarekin bukatzea. Sufirimendu gehien eragiten ari den politika da. Larriki gaixo dauden presoek egotziz aldatu beharko litzateke eta haien eskubideen jabe izanda kalean behar lukete. Bestetik Espainiak ez du aplikatzen Europak agintzen dioen preso zigorren batuketa. Hala eginez gero, preso batzuek kalean egon beharko lukete orain dela urte asko, beste batzuk urtez urte kalera ateratzen

joan beharko liriteke. Azkenik, euskal presoek ia % 100ek zigorra lehen graduan betetzen du. Hori ez da legeak esaten duena. Gradu progresioak ematen joan behar dira. Horiek dira urgentziaz aldatu beharrekoak.

Hori etorriko dela ikusten duzue?

Hori etortzeko jendeak aktibatu egin behar du eta jendea elkarrekin aritu behar dela hori aldatu dadin.

Behin Zaballara iritsita, zer?

Jendeari jakinarazi nahi diogu zein garrantzia duen guretako lastailaren 20ko deialdi horrek. Manifestazio horretan gizarte zibil osoa irudikatu behar da. Orain arte espetxe politika hau defendatu dutenak, edo orain arte mobilizazioetan parte hartzen ez dutenak... Orain da garaia konponbidearen norabidean elkarrekin kalera ateratzeko eta, benetan, sufirimendu guztiakin bukatzeko.

Pentsio duinen aldeko aldarrikapenak ez du udan etenik izanen

Nafarroako Pentsionistak Martxoan eta Otsailaren 22ko Plazak pentsio duinen aldeko aldarrikapenak kalera ateratzen segituko dute udan. Astelehenero, 19:30ean dute hitzordua jarrita. Kontzentrazioa egiten duten tokia aldatuz joanen dira astero, udaletxe paretik Zumalakarregi plazara. Hurrengo Zumalakarregi plazan da.

Sortuk Manolo Campos Castresana omenduko du

Manolo Campos Castresana Herri Batasunarekin Etxarri Aranzako alkate izan zen 1991 eta 1993 artean. Campos hilaren 19an hil zen. Sortuk *Herriaren alkatea* izena eman dion agur omenaldia antolatu du igandeko, 13:00etan, plazan. Haren bidez "familiar berotasuna eskaini eta Manoloren ekarpena eskertu" nahi dute.

Arakildarrak elkarrekin

Arakilgo Egunean udalak Paula Vigo eta Leo Gaintza bikote etxarrendarra omendu zuen, premia duten umeen harrera-familia direlako eta Ekuatore Gineako eskolen eta haurren harrera guneak egokitzen lan egiten dutelako. Aitortza horren ondoren 2017an Arakilen jaiotako haurrei harrera egin zieten: Errozko Irai Perez de Obanos Altuna, Etxeberriko June Goñi Jauregi, Egiarretako Aiora Erbiti Sarasola eta Oier Lazkoz Martiarena, Etxarregi Izaga Rubio Ayanz eta June Zabaleta Santesteban.

Satrustegin piztutako txondorra igandean, 08:30ean, zabalduko dute. Gero otamena izanen da.



MIGUEL ANGEL LAPLANA



PIKUXAR EUSKAL TXOKOA

Udazkeneko festen zain

Asteburu betearen ondoren, igandean despeditu ziren Irurtzango festak. Ostiraleko kalderete lehiaketa Los Mariachi kuadrillarendako izan zen. Ondorengo bazkarian 190 pertsona elkartu ziren. Larunbatean eskuorga lehiaketa bikoitza izan zen. Eta, despeditzeko Irurtzango eta Ejea de los Caballerosko erraldoi eta buruhandiak herrian barna izan ziren.

Ermitaz ermita dabilta irintarrak igandero

Irintarrek aurreko bi igandetan San Gregorio eta San Migelberri ermitak bisitatu dituzte, hurrenez hurren. Igandean bargako Basabeko bordan egingen dute meza 13:00etan. Herriko ermitaz ermita egindako ibilbidea Aralarako santutegian despedituko dute agorrilaren 5an. Azken bi egun horietan elizkizunaren ondoren otamena izanen da.



ETXARRENGO FESTAK

Lau festa egun aurretik

Etxarrendarrek elkarrekin eta bisitariekin partekatzen ospakizunenez betetako festak dituzte aurretik. Egitarauan hutsik egiten ez duten dantzaldien artean Puro Relajoren mexikar doinuak nabarmentzen dira. Etxarrendarrek herri kiroltan, saskibaloiko hiruko jaurtiketan edo ping pongean duten abilezia neurtzeko aukera izanzen dute. Txoripanas neska gazteen musika ikuskizuna ere ez da faltako.

OSTIRALA 27

19:00 Txupinazoa eta festak hasten dira!
19:15 2017-2018an jaiotakoei festetako ttattarra ematea.
19:30 Herri Jokoen VI. Mundu Txapelketa.
19:30 21:30era Dantzaldia Luzianorekin.
22:00 Herri-afaria.
00:00-04:30 Dantzaldia Luzianorekin.

LARUNBATA 28

11:30 Hamaiketakoa.
12:00 Haurrendako Tramankuluren jolasak.

18:00 Txokolate-jana.
18:30 Txoripanas musika ikuskizuna.
19:00 Lorena Arangoaren kale antzerkia.
20:00 Hiruko saskiratzeen txapelketa.
20:00-21:30 Dantzaldia Luzianorekin.
21:30 Bingoa.
22:00 Zezensuzkoa.
22:30 Herri-afaria.
00:00 Dantzaldia Luzianorekin.

IGANDEA 29

11:00 Meza.
11:45 Hamaiketakoa, gaitariak alaituta.
12:30 Herritarren arteko herri kirolak.
16:00-19:30 Haurrendako jolas parkea.
18:00 Elkarpilotaren pilota jaialdia. Ongai-Beraza / Armendariz-Eulate.
20:00 Puro Relajoren mexikar doinuen kontzertua.
21:30 Bingoa eta zozketak.

ASTELEHENA 30

11:30 Hamaiketakoa.
12:30 Ping-pong txapelketa.
14:30 Herri-bazkaria.
16:30 Haurrendako jolasak.
16:30 Mus eta briska txapelketa.
00:00etan Hau pena nik!



BAKAIKUKO FESTAK



OSTIELIA 27

12:30 Bakaikuko haur eta gaztetxoaren arteko herri kirolak.
13:00 Auzatea Jubilatuen elkarteak emana eta Los Tenampas mariatxien kontzertua plazan.
17:00 Pilota partidak Iturrarte pilotalekuan.
Haurrak: Enaitz Begiristain-Ekhi Leiza / Aritz Urrestarazu-Unai Zelaia.

Jubenilak: Ansotegi-Lazkoz / Otxoa-Araña
Seniorrak: Mata-Cordon / Ansa - Arbizu
20:00-22:00etara eta **00:30-03:30** Dantzaldia Gabenara taldearekin.

LANBATA 28

12:00 Apar festa eskola ondoko kantxetan (txankletak eraman).
13:00 Luisyana Duoaren emanaldia plazan.
18:00-22:00 Artisau azoka San Juan plazan.
19:00 Etorkizuna dantza taldea.
20:00 Auzatea Bakarretxoetxea elkarteak emana.
22:00 Zezensuzkoa.
20:00-22:00 eta **00:00-04:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

DOMEKIA 29

13:30 Magia-azatea.

19:00 Aizkora erronka plazan: Larretxea-Beltza / Erdozia-Lopez Azpilikueta.
22:00 Herri afaria plazan.
20:00-22:00 eta **00:00-03:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

HERRI MUGIMENDUAK

OSTIELIA 27

AIZTI EGUNA

Jantzi Bakaikuko Gazte Asanbladaren kamiseta.
15:00 Gazte Bazkaria, Aiztin.
18:00 Gazte erronkak eta kalejira aldarrikatzailea Katxarrangarekin.

LANBATA 28

20:30 Orain presoak kalejira-dantzaldi erraldoia, plazan.
22:00 Gazte afaria, plazan.

DOMEKIA 29

MOZORRO EGUNA

Denok mozorrotzera!



**KOTXKO
Taberna**

Ongi pasa festetan bakaikuarrak!

948 562 607
627 585 414

Bideberrialde
Bakaiku

OLAZTIKO FESTAK



OSTIRALA 27

12:00-14:00 Jolas parkea. Erburua kiroldegiko pista. (Eurria eginez gero, kiroldegian).

12:00 Hamabietakoa, San Miguel elkarteak eskainita, San Miguel plazan.

13:00 Sakanako Trikitilariak taldearen kontzertua, San Miguel plazan.

14:30 Haurrendako bazkaria, Historia-Memoriaren parkean. (Eurria eginez gero, Sutegi gimnasioan).

15:30-18:30 Jolas parkea, Erburua kiroldegiko pista. (Eurria eginez gero, kiroldegian).

17:00 Txirindularitza eskolen proba, Erburua kiroldegian inguruetan. Ondoren, sari banaketa.

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Miguel plazan.

20:00 22:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin, San Miguel plazan.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:30 Alurr dantza taldea: Irradak. Areto futboleko zelaian. (Eurria eginez gero, frontoian).

00:30-03:30 Dantzaldia Drindots taldearekin, San Miguel plazan.

LARUNBATA 28

09:30 Sutegi taldearen pilota txapelketako finalak: aurre-benjaminetatik jubenetara. Sari banaketa. Antolatzailea: Sutegi Taldea.

12:00 Hamabietakoa, Sutegi taldeak eskainita, San Miguel plazan.

13:00 Corrientes Navarras taldearen kontzertua, San Miguel plazan.

14:30 Untxi-kalderete lehiaketa.

Historia-Memoria parkean. (Eurria eginez gero, eskolako pilotalekuan). Parte hartu nahi dutenek **11:00** Sutegi gimnasioa joan beharko dute suak eta bonbonak jasotzera. Kaldereteak **14:30**erako bukatu behar dira epaimahaiak erabaki ahal izateko. Bazkaltzeko mahaia, bankuak eta ardoa eskainiko dira.

16:30 San Miguel elkarteak XLVII. Pilota txapelketako finalak: 3., 2. eta 1. mailak. Ondoren sari banaketa. Antolatzailea: San Miguel elkarteak.

17:00 Goitiberak: San Sebastian baselizatik Ornako zubira. Antolatzailea Sakana Motor Sport, Urbasako Igoeraren 50. urtemuga ospakizunen barruan.

18:00 Potxin eta Patxin pailazoak: Piramideen bila, San Miguel plazan. (Eurria eginez gero, eskolako pilotalekuan).

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Miguel plazan.

20:00-22:00- Dantzaldia Gora Herria taldearekin.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Rojo Telonen zirku-antzerki ikuskizuna: Soy ellas. Areto futboleko zelaian. (Eurria eginez gero frontoian).

00:30-03:30 Dantzaldia Gora Herria taldearekin.

DOMEKA 29

11:00 Haurren areto futbol txapelketa: Uharte Arakil- Ziordia-Sutegi Olazti.

Areto futboleko pista. Antolatzailea: Sutegi Taldea.

12:00 Erraldoi, buruhandi eta gaitariekin elizaraino.

12:00 Hamabietakoa Kamiogaina elkarteak eskainita, San Miguel plazan.

13:00 Araiako musika bandaren kontzertua, San Miguel plazan.

14:00 Herri bazkaria, Historia-Memoria parkean. (Eurria eginez gero eskolako frontoian).

18:00 Motor trial show ikuskizuna, Erburua kiroldegiko pista (Eurria eginez gero frontoian).

20:00-22:00 Dantzaldia Xaiborrekin. **21:00** Hegaluze parrillada, Vicente Argomaniz plazan.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Kaleko piroteknia-ikuskizun ibiltaria, Tragaleguas Teatro taldea: Infierno. Irteera eta helmuga: areto futboleko zelaia.

00:30-03:30 Dantzaldia Xaiborrekin.



MAISUENEA GAZTETXEAN

OSTIRALA 27

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN EGUNA

22:00 Euskal preso eta iheslarien aldeko afaria.

23:00 Kontzertuak: Distorsión Tóxica, Herdoil eta Aurrez Aurre.

LARUNBATA 28

OKUPAZIOAREN EGUNA

17:00 Goitiberak.

24:00 Txupito gaua.

Jai Izoriontsuak opa dike izuegu

AGIRRE ALZABERRIK AROZTEGIA ERAIKUSKETA
948 562 262
Porfuko kalea 19
Urbasa bideg.
OLAZTI

BUJANDA OGI BERRI

Ongi pasa festetan!

OGI BERRI

Kale Nagusia 40, behea · Olazti
648 661 843



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 27

UHARTE ARAKIL Aralarko paisaiak eta trikuharrietara bisita gidatuak. 4 km-tako ibilbide erraza. Erreserbak: info@mirua.com eta 608560369.

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Santutegiko informazio gunetik.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharre Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Eskola ibiltariaren kontzertuak. 21:00etan, Gaztetxean eta plazan.

LARUNBATA 28

ALTSASU Altsasu-Urbaşa-Marañon-Opakua-Agurain-Altsasu 140 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepede atalekoek. 08:00etan, San Juan plazatik.

UHARTE ARAKIL Aralarko milaka urteko paisaiak bisita gidatuak. 4 km-tako ibilbide erraza. Erreserbak: info@mirua.com eta 608560369.

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Santutegiko informazio gunetik.

UHARTE ARAKIL Arkeologia indusketara bisitak. Adituko kideak egiten ari diren lana azalduko dute. 11:00etan, Aralarko santutegian.

IGANDEA 29

ZIORDIA 3X3 Ziordiko Saskibaloia II. Txapelketa. 10:00etatik aurrera, Txipudian.

ETXARRI ARANATZ Manolo



UHARTE ARAKIL Kristauak erasoan munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.

Campos Herriaren alkateari agur ekitaldia. 13:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 30

ALTSASU Kayak jardunaldiak. Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 11:00etatik aurrera, Dantzalekun.

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Marbxan eta Otsailaren

22ko Plataformak deitutako kontzentrazioa. 19:30ean, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 31

AIZKORBE Udako zinema. 22:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 1

IHABAR Ur tailerrak. 11:00etan, plazan.

IRURTZUN Udako zinema: La suerte de los Logan. 22:00etan, Foru plazan.

OSTEGUNA 2

ETXARREN Ur tailerrak. 11:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. **AEMren** Kontzentrazioa. 19:30ean, plazan.


ALTSASU Gaueko pulunpak. Gazteria zerbitzuak antolatuta. 21:00etatik 23:00etara, Dantzalekun.

ALTSASU Paddlesurf. Gazteria zerbitzuak antolatuta. 21:00etatik 23:00etara, Dantzalekun.

ARBIZU Jaialdi akustikoa: Mariachi eta Pacho Balbuena.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 27




Egun goibela izango da, baina sargori izango da egun guztian zehar, hezetasunaren ondorioz. Ateri utsiko dio egun ia guztian zehar, baina tanta batzuk bota ditzake.

Larunbata, 28




Euriarekin esnatuko zaigu eguna larunbatean, euria egin lezake egunaren ordu gehienetan, hala ere ez dira zaparrada mardulak izango. Tenperaturak nabarmen jaitsiko dira.

Igandea, 29



Eguzkiaren protagonismoa izango dugu berriro ere, tenperaturak igoaraziz. Hala ere, ipar haizeak ez digu bero itogarria izaten utziko.

Astelehena, 30



Ipar haizearekin jarraituko dugu, baina eguzkiaren presentzia nabaria izango da. Hau dela eta, tenperatura freskoagoak izango ditugu.

ZORION AGURRAK



Maddi Gastaminza Betelu
Zorionak poxpolin!! Gaur 11 urte, ederki ospatuko dugu. Muxu asko guztion partez!!



Belatz Nabarro Zabala
Zorionak Belatz! Besarkada handi bat! Ama, aita eta Ekain



Miren
Zorionak pitusi! 4 urte beteko dituzu jada. Ondo pasa eguna ta muxu pila bat!!



Santi Razkin Urmeneta
Zorionak familia guztiaren partez!! Ongi pasa zure egunean!



Maria
Zorionak amona! Bazkari on bat zor dizugula uste dut... Muxu handi bat!

Datorren asteke alean zorion itzazu abuztuko lagun guztiak!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com · www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860





GUAIXE
rekin
Hondartzara

Udako argazki lehiaketa

Irabazi 2 lagunendako egonaldia Costa Dauradan!*

Bigarren saria jendeak bozkatuena: Errigora saskia
www.guaixe.eus

EROSKI bidaiak
Anetsetan? Egizu legan!

ERRIGORA

*Lastailaren 11 baino lehen disfrutatu behar da

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA | NEGOZIOAK

BILKETA ZERBITZUA

Sakanako atez ateko arropa bilketa: Arropa, oinetako eta ehunak. Hurrengo bilketa: Ziordia, Uztailak 31. Informazioa 948 469 206

OHARRAK

Telebista saio baterako parte-hartzaile bila: Iruñerrian emititzen den Xaloea Telebistak Euskal City saioa grabatzen hasi zen Berriozarko egoitzan, maiatzean. Euskal jendea-ri zuzendutako saioa da eta edozein adinetako jendearen bila ari dira, hizkuntzaren ikasketa prozesuarekin zerikusia duten esperientziak elkarbanatuz (nola hasi ziren ikasten, zergatik, etab...). "Mintzapraktika bat da, baina, grabatuta. Ongi pasatzeko esperientzia bat, euskararen alde egiten den bitartean". Xaloea telebistatik diotenez, "zuen elkarte, herria, enpresa... promozionatzeko edota ikustarazteko, aukera bikaina da". Harremanetarako: xaloaprodukzioa@gmail.com edo 948 592 476 telefonoa (Izaskun Artigas)

Altsasuko 2017ko kintari harrera: Altsasuko festetan, Irailaren 13an, 10:30ean, 2017an jaiotako kintari harrera eginen dio Udalak. Altsasun errotatuta ez dauden haurrek, zapia jaso eta kintaren lehen argazkian parte hartzeko, agorrilaren 24ra

arte eman dezakete izena www.altsasu.eus-en.

Adona. Odolo-emateak Ziordian: Abuztuaren 7an 17:30-20:30. www.adona.es/eu

Etxarri Aranazko kontsumitzaileen bulegoa. Irailak 3. Iratxe elkarteko kide batek atenditzen du. Aldez aurretik udalarekin izena eman beharra dago.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hilero 1. eta 3.

asteazkenetan, 17:00-19:00.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabx) telefonotara hots egin dezatela

OPATUTAKOAK | GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Auditorioa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburraak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



Abuztuko oharrak
hurrengo alean.
Ondoren...
Oporretara goazi!

ESKELA



Juanita Goikoetxea Mikelez

Itsasoa, zure begien gardentasunean Zoriona, zure irribarraren isladan Babesa, zure besarkada goxoetan Itxaropena, zure larros eta lilietan Eta hodeien artean, mendien magaletan, Txorien kantetan, pinpilipausen norabidean, Behin betiko, gure pentsamendu eta bihotzetan, Zu, gure amama maitea

Zure bilobak
Iker, Josune, Jaione eta Aintzane

Altsasun, 2018ko uztailaren 19an

ESKELA



Eusebia Gabirondo

Iturmendin, 2018/7/22an hil zen 94 urterekin

"Gutako bakoitzean geldituko da, zuk erakutsi eta emandako guzia" Milla esker denagatik amiñe!!

Zure bilobak

ESKELA



Martin Perez Mendia

"Eskerrik asko eskeini diguzun guztiarengatik"

Gora Mexiko!

Altsasuko zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langileak

ESKELA



Simon Flores Lakuntza

Mundua ez da beti jai inoiz tristea ere bai baina badira mila motiboa kantatzeko alai.

Elkarrekin kantuan jarraituko dugu. Geroarte osaba.

Zure ilobak

Altsasun, 2018eko uztailaren 26ean

ESKELA


**Manolo Campos Castresana**

Zeruben izer disdiresu bet piztu da,
zu maitasunan adierazle da aittun.
Beye guai fan ein za eta gu izengo ga
zuk utzitakuan lekuko.
Beti maiteko zeittugu

Zu bilobak eta birbiloba

Etxarri Aranatzen, 2018ko uztailearen 19an

ESKELA

**Manolo Campos Castresana**

Ze gogorra dan zu gabe yotia aita,
ze haundiye utzi diguzun hutsunie...
Beye ze polittek utzi dizkiguzun oroitzapen,
momentu eta jakintza guziek
Beti gukin

Emaztie eta seme alabak

Etxarri Aranatzen, 2018ko uztailearen 19an

ESKELA

Manolo Campos Kastresana

Etxarri Aranazko alkate ohia

"Eskerrik asko zugandik jaso dugun
adiskidetasunagatik"

**Etxarri Aranazko udala**

Etxarri Aranatzen, 2018-ko uztailearen 19an

ESKELA

**Manolo Campos Kastresana**

"Eskerrik asko zugandik jaso dugun
adiskidetasunagatik"

**Aitzkozarreko baba txiki jale taldea**

Etxarri Aranatzen - Iturmendin, 2018-ko uztailearen 19an

ESKELA

**Martin Perez Mendia**

'Mazapan'

Beti gurekin

1979ko kintoak

Altsasun, 2018ko uztailearen 23an

ESKELA

**Martin Perez Mendia**

'Mazapan'

Lagun, zauden tokian zaudela,
zure tronpetaren soinua
entzuten jarraituko dugu

Zure kuadrila

Altsasun, 2018ko uztailearen 23an

JAIOTZAK

- **Ekiñe Marin Ansorena**, uztailearen 13an Dorraon
- **Ibai Urritza Jungitu**, uztailearen 14an Bakaikun
- **Uxue Palacios De Sousa**, uztailearen 17an Lakuntzan
- **Oinatz Goikoetxea Jaka**, uztailearen 18an Etxarri Aranatzen

EZKONTZAK

- **Edurne Olo Astiz eta Ibai Hernaiz Ormaetxea**, uztailearen 13an Lakuntzan
- **Nagore Ikobaltzeta Tajuelo eta Ruben Mozo Lizarraga**, uztailearen 16an Unanun
- **Alvaro Sanchez Pardo eta Joana Jorge Cortes**, uztailearen 20an Altsasun

HERIOTZAK

- **Manuel Iribarren Toral**, uztailearen 19an Uharte Arakilen
- **Eusebia Gabirondo Goikoetxea**, uztailearen 22an Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IZARRA**HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Aizkolariak Bakaikun ariko dira.

AIZKORA Erronka ederra igandean Bakaikun

Bakaikuko festetan kirolak ez du hutsik egingo. Iganderako, esaterako, aizkora erronka pilota antolatu dute. Batetik Goizeder Beltza etxarriarrak Larre-txearekin osatuko du bikoa. Eta, bestetik, Juanjo Erdozia etxarriarrak Lopez Azpilikueta izango du bidaide. Bi bikoteen arteko norgehiagoka oso lehiatua izango denik ez du inork zalantzan jartzen, eta ikuskizun politaz gozatzeko aukera izango da Bakaikun.

Bestalde, larunbatean, Gasteizko Foru Plazan Zazpi Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa jokatu da, 17:30ean. Nafarroa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa lehiatuko dira.

SASKIBALOIA II. Ziordiko 3x3 Saskibaloia Txapelketa igandean

Ziordiko Udako kirol batzordeak, hainbat babesleren laguntzarekin, II. Ziordiko 3x3 Saskibaloia Txapelketa antolatu dute iganderako, goizeko 10:00etik aurrera, Ziordiko txipudian. Txapelketa solidarioa izango da, Dravet Syndromearen Fundazioaren aldekoa. Horrela, aurreko astean antolatutako futbol txapelketa solidarioari 3x3 saskibaloia txapelketa hartuko dio lekukoa, eta jasotakoa Dravet fundazioarendako izango da.

Aipatu txapelketarako 12 neska-mutikok eman dute izena eta 3 taldekidez osatutako 4 taldetan lehiatuko dira. Bukaeran, auzatea izango da parte-hartzaile guztiendako.



Olaztiko frontoia pilotariz beteko da bihar. Goizean txikienen finalak jokatu dira eta arratsaldean helduenak. ARTXIBOA

Udako pilotari onenak Olaztitik aterako dira

PILOTA Larunbatean, 09:30etik aurrera Olaztik Sakanako Udako Pilota Txapelketako 9 finalak hartuko ditu. Eta arratsaldean, 16:30ean, San Migel Elkarteko Pilota Txapelketako finalen txanda izango da.

Olaztiko festetan pilotari lotutako bi hitzordu garrantzitsu izanen dira bihar, larunbatean.

Batetik, Sakanako pilota eskolek antolatutako Sakanako Udako Pilota Txapelketako finalak jokatu dira, bihar, larunbatean, Santa Ana festetan murgildua dagoen Olaztiko pilotalekuan, goizeko 09:30etik aurrera. Sakanako Udako Pilota Txapelketa Sutegik antolatzen zuen Sutegi-San Migel Txapelketaren lekua hartu du eta Sakanako pilota klub gehienetako neska-mutikoak lehiatu dira bertan.

Arratsaldean nagusiek txikienei hartuko diete tarteak. Izan ere, Olaztiko San Migel elkarteak eta Sutegi elkarteak San Migel Pilota Txapelketa antolatzen dute, azken hilabete hauetan jokatu dena. Bihar txapeldunak erabakitze garaia da. Finalak 16:30ean hasiko dira, Olaztiko frontoian.

Gaur pilota partidak Bakaikun

Gaur, ostiralean, herri kirolek eta pilotak izango dute nagusitasuna Bakaikuko festetan. Gaur, ostiral eguerdian, 12:30ean, Bakaikuko haur eta gaztetxoaren arteko herri kirolak jokatu dira plazan. Ondoren, arratsaldean, 17:00etatik aurrera, haurren, jubenilen eta seniorren

arteko pilota partidak jokatu dira Iturrarte pilotalekuan. Haurren mailan, Enaitz Begiristainek eta Ekhi Leitzak Aritz Urrestarazu eta Unai Zelaia izango dituzte aurkari. Jubenilen mailan, aldiz, Ansotegik eta Lazkozek Otxoaren eta Arañaren kontra jokatu dute. Bukatze-ko, seniorren puntako partida iragarri da: Mata eta Cordonen kontra ariko dira Ansa eta Arbizu.

Unai Mata aurten GRAVNI txapelduna izan da eta Pablo Cordon Nafarroa eta Euskal Herriko bikotekako txapeldunordea. Asier Ansa altsasuarra 2017an Gartzarongo bikotekako txapelduna izan zen eta Aaron Arbizu etxarriarra Nafarroako eta EHko bikotekako txapelduna.

Ongayk Etxarrengo festetan jokatu du

Etxarrengo festek ere kirol eskaintza dakarte. Bihar, larunbatean, saskibaloiak izango du protagonismoa. 20:00etatik aurrera Hiruko Saskiratzen Txapelketa antolatu dute. Igandean, aldiz, pilotaren txanda izango da. 18:00etatik aurrera Elkarpi-lotaren pilota jaialdia antolatu dute. Alberto Ongay satrustegiarrak Berzarekin osatuko du bikoa, Armendarizen eta Eularen kontra jokatzeko.

Ezkurdia Bizkaiko Torneoan aurrera

Bakaikoa eta Martija kanpo geratu dira eta Zabaleta eta Ezkurdia etzi lehiatuko dira

Martxan da taldeen arteko Bizkaiko Torneoa. Torneoan lau pilotariz osatutako 6 talde lehiatzen ari dira, hiru partidara. Tarteak, Joanes Bakaikoa Oiz taldeko kidea da, buruz buru aritzeko; Sollube taldean Zabaleta Elezkano II.ekin osatzen du bikoa, binaka; Gorbeia taldean Martijak Altuna III.a du bidaide, binaka, eta Kolitza taldeko kidea da Ezkurdia, lau t'erdian.

Bakaikoak irabazi baina Oizek galdu

Ostiralean Arrigorriagan Gane-korta taldeari irabazi eta gero, Oiz taldeak Anboto taldea izan zuen aurkari igandean Etxeberri, Bizkaiko Torneoako finalerdietan. Anboto taldeak irabazi zuen. Joanes Bakaikoak (Oiz) 18 eta 9 hartu zuen menpean Erasan (Anboto), baina beste bi partidak galdu zituztenez, Oiz txapelketatik kanpo geratu zen. Beraz, Anboto taldeak jokatu du Bizkaiko Torneoako finala, abuztuaren 21ean, Bilboko Aste Nagusian.

Ezkurdiak edo Zabaletak eginen du aurrera?

Beste adarrean igandean beste final laurdena jokatu zuten Barakaldon Gorbeiak eta Kolitzak. Ezkurdian Kolitza izan zen jaun eta jabe, Martijaren Gorbeiaren kontra jokatu hiru partidak irabazi baitzituen. Hortaz, Kolitzak egin du aurrera eta igandean Zeanurin jokatu den finalerdian Zabaletaren Sollube izango du aurkari.

Zeanuriko finalerdian buruz buru Ugalde (Sollube) eta Dario (Kolitza) lehiatuko dira, binaka Elezkano II.a-Zabaleta (Sollube) eta Irribarria-Rezusta (Kolitza); eta lau t'erdian Retegi (Sollube) eta Ezkurdia (Kolitza). Garaileak Bizkaiko torneoako finala jokatu du abuztuaren 21ean Anboto taldearen kontra.

Olaztiko finalak

09:30ean txikienak eta 16:30ean helduen txanda

Sakanako Udako finalak

- **Aurrebenjaminak:** Gurmino-Sarazibar (Olazti) / Agudo-Lizarraga (Olazti)
- **Benjaminak 2:** Garmendia-Razkin (Arbizu) / Lizarraga-Etxeberria (Irurtzun)
- **Benjaminak 1:** Zelaia-Zubiria (Arbizu) / Nagore-Escudero (Irurtzun)
- **Kimuak 2:** Ganboa-Gorospe (Olazti) / Larrañaga-Vicente (Olazti)
- **Kimuak 1:** Igoa-Amiano (Irurtzun) / Amado-Lizarraga (Arbizu)
- **Haurrak 2:** Arretxe-Garmendia (Arbizu) / Ortiz-Ezkurra (Irurtzun)
- **Haurrak 1:** Belardi-Otxotorena (Lizarraga) / Imaz-Lakuntza (Arbizu)
- **Kadeteak:** Goikoetxea-Gorrotxategi (Arbizu) / Zubiri-Martinez edo Imaz-Lizarraga
- **Gazteak:** Txoperena-Ganboa (Leitza) / Ansotegi-Lazkoz (Etxarri)

San Migel finalak

- **3. mailan:** Ieregi anaiak / Migel Javier-Iñaki
- **2. mailan:** Martinez-Flores / Ayes-Jabi
- **1. mailan:** Iñigo-Eñaut / Xabi-Aritz

Maidar Betelu Ganboa

ETXARRI ARANATZ

Noiz hasi nintzen monozikloan?

Duela bospasei urte sanferminetan Bosquecillon jarritako postu batean monoziklo bat ikusi nuen eta kuriositate moduan probatu nuen, ibiltzen ikasteko, besterik gabe. Gero monoziklo hura hautsi nuen, monozikloaren inguruan ibiltzen den jendea ezagutzen hasi nintzen eta gaur arte.

Monozikloa bizikletarekin desberdintzen da bereziki gupil bakarra delako eta uneoro pedaleatu behar delako; piñoi fi-jokoa da.

Iaz Europako Monoziklo Txapelketan parte hartu zenuen, EC Unicycling txapelketan, eta lau domina ekarri zenituen bertatik.

Lehiatzera joan nintzen, parte hartzera, baina ez nuen espero dominen lehian egotea. Zilarrezko hiru -1 km, luzera-jauzia eta Ciclo Cross-, brontzezko bat -maratoia- eta bosgarren postu bat, Cross Countryan eta, horretaz aparte, nire mailan, 19 urtez azpikoan eta 21 urtez azpikoan, urrezko hiru domina lortu nituen. Harrituta eta pozik geratu nintzen, eta motibatuta hurrengo urterako.

Europakoan aritu eta gero esan zenuen hurrengo helburua Hego Koreako Munduko Txapelketan parte hartzea izango litzatekeela eta ametsa gauzatzear zaude.

Bai, gaur hartuko dut hegazkina Hego Korearantz, Bilbotik aterako naiz Amsterdameraino eta handik zuzenean Hego Koreako Incheon aireportura, gero Ansara. Bertan jokatu da txapelketa. 18-19 ordu guztira. Han gure ordua baino 7 ordu gehiago dira. Azken egun hauek pixkat urduri ibili naiz, baina joateko gogotan. Burua han dut hemen baino gehiago. Han udan daude eta beroa eta hezea dute klima, euriarekin... Nahiko gogorra izango dela ematen du. Hemen dugun udarekin, entrenatzeko aproposa (kar kar...) hara joango naiz eta beroa.

Zenbateko parte-hartzea espero da Mundialetan?

Aurreko Munduko Txapelketan 2.000 monoziklista zeuden inskribatuta eta aurtengoan 1.500 inguru izango gara, baina modalitate guztietan. Pentsatzen dut Asian izatean europar gutxiago joango direla. Monoziklista gehien Japonian eta Alemanian daude. Japoniako esko-

"Munduko Txapelketan aritzeko ametsa betetzear nago"

MONOZIKLISMOA EKHI CONGIL MENDIOLA ETXARRI ARANAZKO MONOZIKLISTA

Uztailaren 29tik abuztuaren 11ra Hego Korean jokatu den Unicon 19, Munduko Monoziklo txapelketaren 19. edizioan parte hartuko du etxarriarrak



Ekhi Congil gaur abiatuko da Hego Koreara. Bilbon ekingo dio bidai luzeari. EKHI

len %95-98an derrigorrezko ikasgaia da monozikloa, eta horrek lortu du monozikloan ibiltzea ohikoa izatea. Alemania talde eta zale aldetik ongi dabil. **Igandean hasiko dira Mundialak eta abuztuaren 11n bukatu.**

Lehenengo proba abuztuaren 1ean dut, 10 km-koa. Hortaz, pistetan entrenatzeko badut tartea. Nik bideberria egingo dut batetik, hor proba bat da 10 km-koa (abuztuak 1), erlojupekoa balitz bezala, maratoia, 42 km-koa (abuztuak 7) eta 100 km-koa (abuztuak 10). Eta bestetik mendi probak: mendi jaitsiera (abuztuak 2), ziklokrosa (abuztuak 8) eta cross country (abuztuak 6). Azkenik igoera gogor baino motz bat egingo dut (abuztuak 6). Guztira zazpi-zortzi proba egingo ditut.

Eta zeinean ibiltzen zara hobekien?

Errepideko 10 km-koa egiteko ilusio berezia dut; modalitate hori oso gustukoa dut eta asko entrenatu dut. Guztiek asetzen naute, baina 10 km-koa berezia da. Ziklokrosa baita, ondo moldatzen naiz.

Zer espero duzu? Ezagutzen dituzu zure arerioak?

"OSO ESKERTUTA ETA KONTENTU NAGO JENDEA NIRE BILA ETORRI DELAKO LAGUNTZA EMATERA"

Europakoan asko egon ziren, baina betikoa, ez dakizu beraiek ere zenbat entrenatu duten eta nahiago dut ezer espero ez izatea eta zer pasatzen den bertan ikustea. Disfrutatu eta kito, eta esperientziarekin pozik egotea.

Zenbat entrenatzen duzu?

Unibertsitate garaian gutxiago, denbora gutxiago dudalako eta garaiaren arabera ezberdin. Hasieran entrenamendu luzeagoak egiten nituen, gorputza egiteko, baina orain egiten ditut motzagoak baina gogorragoak. Uda denez, goiz eta arratsaldez atera naiteke, beti ere deskantsuak errespetatuz, baina orain nahikotxo ordu. Gorputza oso fuerte nabaritzen dut; aurten entrenamendu jakin bat egiten saiatu naiz eta puntu potentean nago, fisikoki gustura.

International Unicycling Federationen jarraitzen duzu federatuta?

Bai. Alemanian du egoitza. Estatuan ez dago federaziorik. Italian, Alemanian, Korean... badaude, baina penintsulan ez dago. Federaziorik ez dugunondako, badago federazio handi hau, munduko txapelketak antolatu, baldintzak eta arauak jartzen dituena. Berez da federazio bat sortu zena monoziklista guztiak batzeko eta errekorrak egiten direnean, munduko txapelketetan eta bestetan denborak ofizialak izateko. Bizikletaren UCIn antzekoa litzateke.

Basque Country taldeko kide bakarra izango zara.

Orain dela urte batzuk Basque Countryren izenean hasi nintzen, eta 2016ko Munduko Txapelketan lortu zuten herrialde bat gehitzea, Basque Country, modu ofizialean. Ni Basque Countryko ordezkari bakarra naiz. Antolakuntzatik eskatzen didate ikurriña ematea beste banderekin jartzeko, normalean ikurriña ez baitute izaten, zaila delako lortzen. Euskal Herritik bakarrik ni noa eta Espainiatik Soriatik 2 doaz. Pentsa, Frantziatik 52 doaz, baina hemen afizio gutxi dago.

Hego Koreara joateko diru-laguntza lortzea zaila izan da?

Oso-oso eskertuta nago. Bere momentuan deialdia egin nuen, Mundialera joan behar nintzela eta laguntza bila. Eta oso pozik nago jendea nire bila etorri delako laguntza emateko. Oso kontentu eta eskertuta nago babestu nauten guztiengatik. **Zortea alde izan dezazula!** Eskerrik asko.



Sakanako Haur Triatloian parte hartu zutenek ibilbidearen edertasuna nabarmendu zuten.

90 triatleta Urdiaingo triatloi festan

TRIATLOIA Mank-ek antolatutako XVII. Sakanako Haur Triatloia hartu zuen Urdiaingo igerilekuak. Nafar Kirol Jolasetarako baliaigarriak, Sakana Triatloi taldeko Oihan Anduezak eta Mikel Arrizabalagak euren mailako probak irabazi zituzten

Urdiaingo igerilekuak atzera ere triatleten bilgune izan ziren. Sakanako Mankomunitateak antolatuta, larunbat goizean jokatu zen XVII. Sakanako Haur Triatloia. Guztia behar bezala ateratzeko, Nafarroako Triatloi Federazioaren, Nafarroako Gobernaren, Aitziber elkartearen eta Urdiaingo Udalaren laguntza izan zuen Mank-ek.

Urdiainen jokaturako proba Nafar Kirol Jolasetarako (NKJ) baliaigarria zen eta aurretik 100 triatloi inguru zeuden izena emanda, tartean Sakana Triatloi Taldekoak eta egunotan Sakanako Triatloi Campusean parte hartzen ari diren neska-mutikoak, eta, azkenean, 90 partaide

inguru izan zituen probak, 16 inguru sakandarrak. Sei mailatan jokatu zen Sakanako Haur Triatloia, maila bakoitzak bere adinari lotutako distantziekin. Helduenek ekin zioten probari eta txikienak izan ziren irteera hartzen azkenak. Probak jokatu bitartean ibilbidea zaindua, markatua eta trafikoari itxita egon zen.

Sakandarrak ongi

Igeriketa segmentua Urdiaingo igerilekuetan jokatu zen, txirrindularitza segmentua Urriztin eta Saraben eta korrika segmentua Urriztin barna. Horrela, paraje zoragarrietan ibili ziren triatletak euren zaletasu-

naz gozaten. Lokaztuta, baina ibilbide ederrean ibili zirela goraiatu zuten guztiek. Aipatzekoa da sakandarrak oso txukun ibili zirela. Esaterako, aurrebenjaminetan Oihan Andueza gailendu zen eta benjaminetan Mikel Arrizabalaga. Ane Iturrioz eta Ekain Imaz bigarrenak sailkatu ziren kimuetan, eta haurren mailan Nahia Imaz laugarrena eta Hegoi Lakuntza hirugarrena izan ziren.

Bukaeran triatletek ogitarte-koarekin eta zukuarekin berreskuratu zituzten indarrak. Egun polita izan zen, eta guztia ongi ateratzeko Sakana Triatloi taldekoek egindako lana eskertu zuten Mank-ek.



Gorka Izagirre bigarrena izan zen Pirinioetako lehen etapan. TEAM BAHRAIN MERIDA PRESS

Tourra: Senpere-Ezpeletako erlojupekoak du azken hitza

TXIRRINDULARITZA Thomasek lidergoa defendatzen jarraituko du. Euskal aldarrikapenak egitera deitu dute

Igandean despedituko da Frantziako Tourra, Parisen. Aurretik bi etapa polita gelditzen dira. Ostiralean Pirinioetako azken etapa jokatu da, Lourdesen hasi eta Larunsen despeditzen dena, goi- mendikoa, 6 mendaterekin, eta larunbatean Senpere eta Ezpeleta arteko 31 km-ko erlojupekoa. Atzo esprinterrendako aproposa zen etapa laua jokatu zen, Trie-Sur-Bäise eta Pabe artean (171 km), eta Guaiexeko erredakzioa interakioan artean ez genuen gertatutakoaren berri. Hala ere, ez zen aldaketa handirik espero. Atzoko etapari ekin baino lehen, Thomas Geraint (Sky) zen liderra (70:34:11), Tom Doumolini 1:59 eta bere taldekide Chris Froome 2:31 denborako tarte atarata. Skyko lider berria da Thomas, Froome baino hobeto dabilera erakutsi du eta ikusiko dugu zer emango duten azken etapek. Gorka Izagirre 28.a da, 43:14ra, eta Imanol Erbiti Tour bikaina egiten ari da eta 78.a da, 2:12:51ra.

Pirinioetan makina bat lan egin behar izan dute gure txirrindulariek. Asteartean Bagnères de Luchonen despeditutako etapen garaipenagatik borrokatu zuen Gorka Izagirrek, baina Alaphilippe gailendu zitzaion. Eta Carcassonnen despeditutako igandeko etapan Imanol Erbiti eguneko ihesaldian sartu zen.

Egunotan makina bat sakandar dabilta Tourra jarraitzen eta asteburuan ere makina bat ber-

taratuko dira, Pirinioetan eta Euskal Herrian ibiliko baita Tourra.

“You are in the Basque Country” aldarrikatuko da Senpere-Ezpeletan

Larunbatean Tourreko erlojupekoak Senpere eta Ezpeleta batuko ditu. Antolakuntzatik garaiz bertaratze gomendioa egin dute, eta ezin izango dira autoak galtzadan aparkatu.

Tourra Euskal Herrikeri pasatzen dela aprobetxatuz, ibilbide guztian barna aldarrikapena egitera deitu dute “You are in the Basque Country” lelopean. “Euskal herritarrek gurela eta gure buruaren jabe izango gurela plazaratuko dugu munduan barna Tourra zabaltzen duten 78 telebista kate horiek ematen duten seinaleen bidez. Jai mundiala antolatuko dugu. Ustari-tzetik Zuraidera bidean, Larresoron, 6 hektareako larre bat lortu dugu eta jai-gune bat muntatu dugu bertan: pantaila handia, txosnak, puzgarriak, oholtza, zerbitzuak... izango dira bertan. Eta 12:00etan giza mosaikoa egingo dugu, GPS irudia, munduan barna mezu hori zabaltzeko, nazio bat gurela. Bide bazarren gure kolorez jartzeko deia egiten dugu, ikurriñak eta “You are in the Basque Country” kartelak” adierazi dute Ezpeletako antolatzaileek.

Giza mosaikoa osatzeko goizeko 11:00etarako Larresoroko jai-gunean egotea eskatu dute antolatzaileek.

Sakandarrak XVII. Sakanako Haur Triatloian

Aurrebenjaminak, neskak

1. Itziar Arrosagarai (Arang.) 7:02

Aurrebenjaminak, mutilak

1. Oihan Andueza (Sak) 6:13
4. Unax Mendiñueta (Sak) 6:58
5. Tasio Garcia (Sak) 7:15

Benjaminak, neskak

1. Eider Agirre (Ur Gazia) 8:41

Benjaminak, mutilak

1. Mikel Arrizabalaga (Sak) 8:30
2. Jon Ducar (Sak) 8:34
6. Beñat Andueza (Sak) 9:59

7. Eneko Razkin (Sak) 10:02

Kimuak, neskak

1. Ane Arrosagarai (Arang.) 17:06
2. Ane Iturrioz (Sak) 18:17
6. Iraide Arrizabalaga (Sak) 19:41

Kimuak, mutilak

1. Aiert Mendioroz (Hiruki) 15:36
2. Ekain Imaz (Sak) 15:43
3. Alain Razkin (Sak) 16:04
5. Iker Gomez (Sak) 17:01
9. Oihan Gorriti (Sak) 19:00

Haurrak, neskak

1. Jennifer Lopez-Roso 30:23
4. Nahia Imaz (Sak) 32:12

Haurrak, mutilak

1. Sergio Ajona (Antsoain) 28:59
3. Hegoi Lakuntza (Sak) 30:52
6. Iosu Mujika (Sak) 32:55

Kadeteak

1. Max Agirre (G) (Triku) 49:28
1. Amaia Zudaire (E) (Triku) 57:44

Juniorrak

1. Alejandro Iturbide (G) 49:23
1. Alba Escobar (E) 1:11:55



Nafarroako txapeldunak, Josu Etxeberria eta Igor Arrieta tartean (Urko Berrade falta da).

Etxeberria eta Arrieta txapeldun

TXIRRINDULARITZA VII. Iturmendiko Erlojupekoan Josu Etxeberria eta Igor Arrieta Nafarroako txapeldunak izan ziren, Asier Ormazabal, Bakarne Gonzalez eta Unai Aznar txapeldunordeak eta Iker Mintegi eta Maria Beraza hirugarrenak

Iturmendi txirrindulariz bete zen igandean, VII. Iturmendiko Erlojupeko Txapelketan. Proba, aldi berean, Nafarroako Txapelketa zen, eta juniorren mailan eta afizionatuen emakumezkoetan, Euskadiko Txapelketa.

Afizionatuak: Ormazabal eta Aramendia Nafarroako txapeldunordeak

Afizionatuak izan ziren lehenak abiatzen. 14 km zituzten aurrez aurre, Iturmenditik Arbizuko industrialderaino eta buelta. Lizarteko Urko Berradek hegana egin zuen eta azkarrena izan zen (13:17), Iturmendiko proba eta 23 urtez azpiko Nafarroako Erlojupeko Txapelketa bereganatu. Bigarrena, bere taldekide Asier Ormazabal ziordiarra sartu zen (18:04), Nafarroako txapeldunordea. Pablo Villar arakildarra elite mailako Nafarroako txapelduna izan zen, baina Nafarroako txapelduna izan zen Iturmendiko (18:50). Burundako Quesos Albenizko Ailetz Lasa ziordiarra zortzigarrena sartu zen, Nafarroako txapeldunordea (19:03).

Emakumezkoetan Naia Amondarain (Oriako) izan zen azkarrena (20:42). Berak lortu zuen Euskadiko erlojupeko txapelduna izatea eta Iturmendin hirugarrena sailkatu zen Irati Puigdefabregas (Nafarroa-Ermitagaña, 21:48) Nafarroako txapelduna izan zen. Lehen sakandarra Ride-Vektor taldeko Bakarne Gonzalez altsasuarra izan zen, sailkapen orokorrean 9.a baina Nafarroako txapeldunordea (23:30). Leire Maiza etxarriarra Nafarroako Txapelketan hirugarrena sailkatu zen (24:03).

Juniorrak: Etxeberria, Lasa, Gonzalez eta Maiza podiumera Juniorrek afizionatuen distantzia berbera osatu zuten, 14 km. Oso ongi ibili ziren guztiak. Ekitaldiko aurkezpen lanak egin zituen

Juan Mari Guajardok zioen bezala "hemen ez dago lan txarririk". Gastronomía Baskako Jon Barrenetxeak egin zuen denborarik onena (18:12) eta bera izan zen Euskadiko txapelduna. Aralar klubeko Intersport Irabia talde-

ko Josu Etxeberria laugarrena sailkatu zen, baina Nafarroako txapelduna izan zen Iturmendiko (18:50). Burundako Quesos Albenizko Ailetz Lasa ziordiarra zortzigarrena sartu zen, Nafarroako txapeldunordea (19:03).

Emakumezkoetan Naia Amondarain (Oriako) izan zen azkarrena (20:42). Berak lortu zuen Euskadiko erlojupeko txapelduna izatea eta Iturmendin hirugarrena sailkatu zen Irati Puigdefabregas (Nafarroa-Ermitagaña, 21:48) Nafarroako txapelduna izan zen. Lehen sakandarra Ride-Vektor taldeko Bakarne Gonzalez altsasuarra izan zen, sailkapen orokorrean 9.a baina Nafarroako txapeldunordea (23:30). Leire Maiza etxarriarra Nafarroako Txapelketan hirugarrena sailkatu zen (24:03).

Kadeteak: Arrieta, Aznar, Mintegi eta Beraza gorenean

Kadeteetan Iturmendi-Etxarri Aranatz joan-etorria egin behar izan zuten (10 km). Lehia estua izan zuten txirrindulariek eta azkenean irteeran azkena izan zen Aralar klubeko Intersport Irabiako Igor Arrieta gailendu zen (13:17). Uhartte Arakilgoa Nafarroako txapelduna dugu. Bigarrena Quesos Albenizko Unai Aznar sailkatu zen (13:32), Nafarroako txapeldunordea, eta hirugarrena Quesos Albenizko Iker Mintegi (13:50). Beste behin podiumeko goiko postuak bereganatu zituzten sakandarrek.

Eta emakumezkoetan 5 txirrindulari aritu ziren, bostak Nafarroa-Ermitagaña taldekoak eta Idoia Eraso izan zen azkarrena eta Nafarroako txapelduna (15:34). Maria Beraza uhartearra hirugarrena sailkatu zen, aldi berean hirugarren Nafarra (17:54).



Maria Beraza kadetea, erlojupekoari ekiteko prest.

Sakandarrak

Kadeteak (10 km)

Gizonak	
1. Igor Arrieta (I.I.)	13:17
2. Unai Aznar (I.I.)	13:32
3. Iker Mintegi (Q.A.)	13:50
4. Hugo Aznar (Q.A.)	13:55
5. Sergio Lopez (Q.A.)	14:14
7. Aitor Alberdi (I.I.)	14:24
12. Oihan Etxeb. (Q.A.)	14:54
20. Migel Gil (Q.A.)	15:26
22. Martzel Etxeb. (I.I.)	15:30
28. Jon Chamorro (Q.A.)	15:43
30. Mikel Lizasoain (I.I.)	15:48
45. Aitor Ondarra (I.I.)	17:11

* Nafarroako txapelketa: 1. Igor Arrieta. 2. Unai Aznar. 3. Iker Mintegi

Emakumeak

1. Idoia Eraso (Nafarroa)	15:34
3. Maria Beraza (Nafarroa)	17:54

* Nafarroako Txapelketa: 1. Idoia Eraso. 2. Amaia Zudaire. 3. Maria Beraza

Juniorrak (14 km)

Gizonak	
1. Jon Barrenetxea (Baska)	18:12
4. Josu Etxeberria (I.I.)	18:50
8. Ailetz Lasa (Q.A.)	19:03
17. Beñat Etxezarreta (I.I.)	19:56
20. Diego Gonzalo (I.I.)	20:22
21. Urko Gorriti (I.I.)	20:26
22. Andoni Urrea (I.I.)	20:27
25. Imanol Galarza (I.I.)	20:48
26. Inhar Astiz (I.I.)	20:49
27. Iker Cerviño (I.I.)	20:55
29. Jon Gil (El Caserio)	21:02
34. Xabier Mauleon (I.I.)	21:29
50. Javier Mitxaus (I.I.)	24:14

* Nafarroako Txapelketa: 1. Josu Etxeberria. 2. Ailetz Lasa

* Euskadiko Txapelketa: 1. Jon Barrenetxea. 4. Josu Etxeberria

Emakumeak

1. Naia Amondarain (Oria.)	20:42
9. Bakarne Gzlez. (R.Vektor)	23:30
12. Leire Maiza (Nafarroa)	24:03
14. Joana Irastorza (CAF)	25:11

* Nafarroako Txapelketa: 1. Irati Puigdefabregas. 2. Bakarne Gonzalez. 3. Leire Maiza.

* Euskadiko Txapelketa: 1. Naia Amondarain. 9. Bakarne Gzlez.

Afizionatuak (14 km)

Gizonak	
1. Urko Berrade (Lizarte)	17:39
2. Asier Ormazabal (Lizarte)	18:04
5. Eneko Aramendia (Rural)	18:32
8. Alex Uncilla (Telcom)	19:06
11. Pablo Villar (Telcom)	19:38

Nafarroako Txapelketa (23 urtez azpikoak): 1. Urko Berrade. 2. Asier Ormazabal. 3. Iñaki Irazoki.
* Nafarroako Txapelketa (eliteak): 1. Pablo Villar.

Emakumeak

1. Ainara Elbusto (R.Vektor)	20:37
8. Maialen Aramendia (Sop.)	23:40

* Nafarroako Txapelketa (23 azpi): 1. Miriam Gardachal. 2. Maialen Aramendia
* Nafarroako Txapelketa (eliteak): 1. Ainara Elbusto

Beñat Katarain, Euskal Selektioko kide berria

MENDI LASTERKETAK Aztirin garaipena lortuaz estreinatu da lakuntzarra Euskal Selektiokoarekin. Igandean Andorrako Comapedrosa Skyrace lasterketa ezagunean ariko da, selektioko beste 7 kiderekin batera

Igandean Gabiria-Legazpiko Aztiri mendi lasterketa jokatu zen (10,5 km) festetan murgilduta zegoen Aztiri auzoan. Egun berezia izan zen Beñat Katarainendako, Zegaman bizi den lakuntzarra Euskal selekzioarekin debutatu baitzuen aipatu mendi lasterketan. Denboraldi bikaina darama Beñatek, eta bere lanaren errekonozimendu bikaina da bera Euskal Selektiorako hautatu izana, prime-rako saria.

Eta aipatzekoa da Euskal Selektiokoarekin debut oso ona egin zuela Katarainek, Aztiriko mendi lasterketa irabazi baitzuen (48:49), Martin Diez segurarrari



Beñat Katarain, Aztirin, Euskal Selektioko kamisetarekin. IRUNE KATARAIN

minutu pasa aterata (49:59). Lasterketa honetan ere Aritz Murriz etxarriarra aritu zen. Lasterketetako sentsazio onak berreskuratzen dabil etxarriarra, eta zazpigarrena sartu zen helmugara (53:15).

Asteburuan Comapedrosara

Igandean Andorrako Comapedrosa Skyrace mendi lasterketa ezaguna jokatu da Arinsalen, 21 km eta 2.300 metroko desnibel positiboa duen proba ikusgarria, Comapedrosa gaina (2.942 m) tartean. Proba Skyrunner World Series edo Munduko Txapelketarako baliagarria da. Euskal Selektioak 8 taldekideekin parte hartuko du, eta tartean egongo da Beñat Katarain. Selektioan izango dituen taldekideen artean daude Ander Iñarra, Oihana Azkorbebeitia eta Aitziber Ibarbia. Munduko Txapelketa izanik, korrikalari onak izango dira bertan.

Beñat Katarainek aurreko urtean Comapedrosan parte hartu zuen eta 288 korrikalarien artean 27.a sailkatu zen (3:12:18). Ea aurten, Euskal Selektioarekin, nola moldatzen den.

Aldasoro sakandar azkarrena itsasoan

2.417 igerilarik osatu zuten Getaria-Zarautz itsas-zeharkaldia eta 273.a izan zen Aldasoro

Igandean XLVIII. Getaria-Zarautz Itsas-zeharkaldi ezaguna jokatu zen. Getariatik abiatu eta 2.850 metro igerian osatzea zen erronka, Zarautzera iristeko. Guztira 2.417 igerilarik lortu zuten distantzia osatzea, Nikolas Illarremendi zarautzitarra (33:08) eta Amaia Iriarte burlaterra (34:32) buru zirela.

Aldasoro eta Guzman

Hainbat sakandar lehiatu ziren, 16 sakandarrek lortu zuten Zarautzera iristera, eta Patxi Aldasoro olaztiarra (43:59) eta Elena Guzman altsasuarra (51:20) izan ziren azkarrenak.

Manolo Campos



1935 - 2018

Herriaren alkatea

agur ekitaldia

Uztailak 29 · 13:00etan · Etxarri Aranz



sortu



UTZITAKOIA

Waterpilotik kayaketara

WATERPOLOTA / KAYAK Mank-ek udako kanpainaren barruan antolatuta, aurreko ostegunean Waterpolo Txapelketa jokatu zen Ziordiko igerilekuan. 6 eta 13 urte bitarteko 45 partaide izan ziren eta bikain pasa zuten. Astelehenean, aldiz, kayak jardunaldia izanen da Altsasuko Zelandi igerilekuan, goizeko 11:00etatik aurrera.

Sakandarrak

Sakandarrak XLVIII.

Getaria-Zarautzen

1. Nikolas Illarremendi (Zara.): 33:08
273. Patxi Aldasoro (Olaz): 43:59
711. Ioseba Razkin (Lak): 48:48
- 1.009. Elena Guzman (Alts): 51:20
- 1.165. Luis Angel Diaz (Alts): 52:56
- 1.166. Julian Savarain (Arb): 52:57
- 1.240. Juntxu Zabala (Arb): 53:33
- 1.284. Josu Ducar (Arb): 53:51
- 1.325. Aitor Azpiazu (Etx): 54:26
- 1.339. Leire Palacios (Alts): 54:41
- 1.719. Jaione Astiz (Arakil): 58:02
- 1.799. Amaia Arza (Alts): 58:59
- 1.905. Ignacio Elbusto (Alts): 1:00:23
- 2.147. Ioni Araña (Arb): 1:05:03
- 2.160. Jose Migel Razkin (Etx): 1:05:21
- 2.203. Esther Aiestaran (Bak): 1:06:39
- 2.205. Angel Saldaña (Alts): 1:06:44



Los del Atlas taldekoak, Ziordiko txapeldunak. UTZITAKOIA

Los del Atlas txapeldun Ziordiko I. Futbol Txapelketa solidarioran

ARETO FUTBOLA Sei talde lehiatu ziren eta Rayo Vayacanori 6 eta 4 irabazi zioten Los del Atlasekoek

Ziordian futbolaz gozatu zuten larunbatean. Ziordiko Udaleko Kirol Batzordeak, hainbat babesleren laguntzarekin, Ziordiko I. Futbol Txapelketa solidariora antolatu zuen, Dravet Sindromearen Fundazioaren alde eta sei talde lehiatu ziren: Ziordia, Urdiain, Leones del Atlas, Rayo Vayacano, Futsal Sakana eta Rochling Araia.

Sei talde lehiatu ziren

Hasierako ligaxkaren ondoren, Leones del Atlas, Futsal Sakana, Ziordia eta Rayo Vayacano sailkatu ziren finalerdietarako, eta Leones del Atlasek eta Rayo Vayacano jokatu zuten txapelketako final handia, finalerdietan gailendu eta gero.

Final oso estuan, partidana laura berdindu zuten bi taldeek, eta berdinketa hausteko luzapenean, Leones del Altsasek bi gol sartu zituen eta, azkenean, txapeldunak izan ziren, Rayo Vayacano talde altsasuarrari 6 eta 4 irabazita.

Txapeldunordea Rayo Vayacano izan zen, hirugarrena Futsal Sakana, laugarrena Ziordia, bosgarrena Urdiain eta seigarrena Rochling Araia.

Jasotakoa Dravet Fundaziorako

Talde bakoitzak 30 euroko inskripzioa ordaindu zuen, eta, horretaz gain, Dravet Fundazioaren aldeko zozketa egin zen. Horrela, guztira 433 euro lortu ziren -180 euro inskripzioetan eta 253 euro boletotan-, Dravet Fundaziora bideratuko direnak.

Ziordiko I. Futbol Txapelketa

Aurreko larunbatean jokatu zen Ziordiko I. Futbol Txapelketa. Sei futbol talde lehiatu ziren eta ligaxkaren ondoren finalerdiak eta finalak jokatu ziren.

Ligaxka

- Ziordia 6 – Urdiain 4
- Leones Atlas 5 – Rayo Vayacano 7
- Ziordia 5 – Futsal Sakana 5
- Leones Atlas 11 – Rochling Araia 4
- Urdiain 5 – Futsal Sakana 7
- Rayo Vayacano 10 – Rochling Araia 3

Finalerdiak

- Leones del Atlas 13 – Futsal Sakana 6
- Ziordia 5 – Rayo Vayacano 8

Finalak

- 5. eta 6. postuak: Urdiain 7 – Rochling Araia 7 (Penaltietan Urdiain txapelduna)
- 3. eta 4. postuak: Futsal Sakana 9 – Ziordia 4
- Final handia: Leones del Atlas 6 – Rayo Vayacano 4


June Kintana, Espainiako txapeldunordea

DISKO JAURTIKETA Getafen jokaturako Espainiako Atletismo Txapelketetan bikain ibili da disko jaurtilari bakaikuarra. Sabina Asenjo txapeldunarengandik (55.99 m) soilik zentimetro eskas batera sailkatu da Kintana (55.98 m)

Asteburuan Espainiako Atletismo Txapelketak jokatu ziren Getafen. Atleta nafarrek 8 domina ekarri dituzte guztira. Tartean dago June Kintana disko jaurtitzaile bakaikuarra ekarritako zilarrezkoa, eta honi Nico Quijerak, Adrian Vallesek, Sergio Fernandezek eta Maitane Melerok lortutako urreak, Izaskun Turrillasen eta Manu Quijeraren zilarrezkoak eta Miren Bartolomeren brontzezkoa gehitu behar zaizkio.

Zentimetro eskas bateko aldea

Espainiako Disko Txapelketan lehiatu zen June Kintana (Grupompleo Pamplona Atletico), eta finalerako sailkatu zen 23 urteko bakaikuarra, Leonen bere entrenamendu kidea den 32 urteko Sabina Asenjorekin (Futbol Club Barcelona) eta Mar Morantekin (Atletico Safor-Delikia Sports) batera. Asenjo eta Kintanak oso lehia estua izan zuten, eta finalean zentimetro



June Kintana, Espainiako disko jaurtiketa txapeldunordea, podiumean. ESPAINIAKO FED.

eskas batek erabaki zuen txapelduna. Horrela, Sabina Asenjo gailendu zen (55.99 m), June Kintanari zentimetro eskas bat aterata (55.98 m). Mar Morantek 4 metro gutxiago jaurtiki zuen diskoa (51.69 m). Bakaikuarrak

Espainiako Aire Zabaleko Txapelketetan lau domina ditu. Azken lau edizioetan bi zilarrezko eta bi brontzezko lortu ditu. Junek 23 urte ditu eta progresioa egiteko tarte, Asenjo 32 urte dituela kontuan hartuta.

Bargagain bilgune

MENDIA Igandean altsasuarrak Bargagainera jo zuten. Goizeko 09:00etan abiatu ziren, eta gazteluan hamarretakoa egin ondoren, Bargagaingo gurutzera (1.156 m) iritsi ziren. Bertan elizkizuna, auzatea, urdaiazpiko zozketa eta beste izan ziren. Zilarrezko katiluetan ardoa edan eta gero, zortzikoen txanda iritsi zen, Altsasuko festetan ezinbestekoa.



ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

"Inspirazioa eta pasioa" den herrialdean saritua

Itziar Nazabalek arabiar kulturagatik benetako "pasioa" sentitzen du. Marokora askotan joaten da arte jaialdietara gonbidatuta. Oraingoan saria jaso du, haren arte ibilbideagatik errekonozimendua dena. Nazabalek ez zuen saria jasotzea espero

ALTSASU

"Martileko Nazioarte Arte Jaialdiko mustutze ekitaldira joan nintzen eta bat-batean Pamplo-na esaten zutela entzun nuen. Nirera jarraitu nuen, baina guztiek begiratzen zidatela nabaritu nuen. Eta, bai, saria jasotzera atera behar nintzen". "Sorpresa handia" izan zen Itziar Nazabal artista altsasuarrendako saria jasotzea. Martilera "nire pasioa, nire artea, nire bizitza, barnean daramadana egitera" joan zen.

Arte jaialdiak artisten topaketak dira. Irauten duten bitartean artistek esperientziak elkartrukatzeko dituzte eta zuzenean margotzeko aukera izaten dute ere. Nazabal Marokoko hainbat arte jaialditan egon da, baina gehienetan Atlantiko aldean egon da. Martileko Arte Jaialdia, aldiz, Mediterraneo zonaldean zegoen, Tetuan aldean.

Martileko Nazioarteko Arte Jaialdia muralen ingurukoak zen.



Nazabal saria jasotzen. UTZITAKOIA

Parte hartzen zuten artistek muralak egin zituzten hirian zehar. Jaialdietara joaten diren artistek elkar ezagutzen dute, baina kasu honetan Nazabalek gutxi ezagutzen zituen: "oso artista interesgarriak ezagutu

ditut jaialdi honetan". Hortaz, lagun berriak eta kontaktuak egin dituzte jaialdietan ere. "Seguruenik datorren urtean Marokora itzuliko naiz".

Nazabalek "esplosio" bidez sortzen ditu bere artelanak. Martileko jaialdian egindako muralak bi elementu izan zituen: "alde batetik, artelana dago eta gero hura sortzeko egindako performance edo show-a". Artistaren sortze-prozesua ikusteko jende asko gerturatu zen. "Jakin-mina zegoen".

Nazabalek haurrendako tailer bat ere egin zuen Lertxundi zentroan. Haurren espresio librea landu zuten gehienbat. Gainera, haur batek performancea egiten ikusi zuen eta "horrelako zerbait" egin nahi zutela komentatu zioten. Oso esperientzia polita izan zen artistarendako.

Artistarendako arlo artistikoa zein pertsonalean herrialde arabiarak "inspirazioa eta pasioa" dira: "pilak kargatzen didate".

Dibertsitatearen koloreak herriari bizitza emateko

Ortzadarrak margotu dituzte Altsasuko erdiguneko hainbat eserlekutan sexu aniztasuna aldarrikatzeko

ALTSASU

Altsasuko Gazteria Zerbitzuak antolatutako Gu Geu Gazte programaren barruan "kale artea" ikastaroa egin zuten. Kale arteak bi helburu ditu: alde batetik, aniztasun funtzionala duten gazteen partaidetza bultzatzea eta, bestetik, haien sexualitatea ikustaraztea. "Izaki guztiak bezala sexudunak eta erotikoa ere badira", azaldu du Blanki Torres Gazteria teknikariak.


Ortzadarraren ikurra sexu aniztasunaren ikurra da, hortaz, ikono hori erabili dute "norberak



Kale artea ikastaroa. UTZITAKOIA

bere sexualitatea eta sexu orientazioa bizitzeko modu propioa duela" aldarrikatzeko. Artelana egiteko lekua, ere, aproposa da Torresek azaldu duenez: "herriko erdigunea aukeratu dugu bistan izateko mezu hori".

Ortzadarrak udaletxe pareko kalean dauden sei eserlekuetan margotu dituzte hainbat gaztek. Itziar Nazabal artista izan da ikastaroaren zuzendaria eta irakaslea. Nazabalentzat herriari kolorea emateko proposamen "oso polita" izan zen. Gainera, aldarrikatzen duen mezua "garrantzitsua" dela adierazi du: "bada garaia gure artean elkar errespetatzeko. Denok gaude mundu honetan". Ikastaroan une politak izan direla eta disfrutatuz egin dutela adierazi du Nazabalek. "Herrirako zerbait egitea beti polita da".



BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ
RUIZ DE LARAMENDI

Ez nazazue sakon lurperatu (lurrazpian ez dago koberturarik)

Aurrerapen iraultzaile bat ekarriko dizuet gaur, begi onez ikusiko ez duzuela jakin arren. Zuen konfiantzaren muturtxo bat eskatzen dizuet soilik: oroitu proposamenak ez direla lege, eta agian gaur ulertzen ez duzuenak, bihar natural irentsiko duzue.

Oso barneratua dugu oraindik izenak ematearen ohitura. Pentsaezina egiten zaigu izenik gabe bizitzea. Ez naiz, beraz, izenen aurka ipiniko, ez: haien osagaiek larritzen naute ni.

Sentimentalki izenei lotuta gaude eta horrexegatik gaude gaur horren zahartuta. Eta hala ere, zuen arbasoen izenak ekartzean antzemango duzue zenbat aldatu zaizkigun belaunaldietan zehar. Azken batean, izenak arbitrarioak dira guztiz, eta horrela izanda, burutsua litzateke malguagoak izatea.

Garaia da, beraz, gure beldurra ahaztu eta gure izen zahartuen aurka egiteko. Ez al duzue ikusten garai galdu baten aztarna direla?

Antiekonomikoak dira, beti errepikatzen dira eta gaizki ulertuetara gidatzen gaituzte.

Izan gaitetzen ausartak: dei diezaiegun gure seme-alabei haien telefono zenbakiakin. Badakit hasiera batean batzuei korapilatsua egingo zaizuela horrenbeste zenbaki oroitzearen lana, baina gogoan izan milaka pasahitz buruz ikasi dituzuela jada.

Eta mugikorren zabaltzea onartu nahi ez duzuenok, ez zaitezte hipokritak izan, maiz ikusi zaituztet ezkututzen selfiak ateratzeko, aspaldian komunetan apaintzeko gordetzen zineten moduan. Eta horregatik erortzen zaizkizue egunero ehunka, milaka, milioika mugikor munduko komun-ontzietara.


Eta hala ere, ez pentsa jokaera hori leporatzen ari naizenik, naturala da esperoan gaudela mugikorrari begiratzea. Beharrezkoa dugu bitartean, ez aspertzearren, norbaitek konpainia egitea telefonoaren bestaldetik: bertatik helduko zaizkigu beti berririk garrantzitsuenak, maitasun hitzak, augurioak eta profeziak.

Horrela izanda ez al dirudi gure izenak aldatzeko garaia? Nire izena 682306062 izanen da eta deitzen didazuenean ziurtasunez erantzungo dizuet, beste Mar guztiei deika ari zaretela pentsatu gabe.



Gozategiaren espazio naturala

Gozategi taldearen espazio naturala plaza da, eta hala dela erakutsi zuen Etxarri Aranazko plazan ostiralean eskaini zuten kontzertuan. Taldearen doinuek dantzan jarri zuten plaza. Izan ere, taldeak horretarako ahalmena dauka. G diskoa kaleratu zuten maiatzean, eta kontzertuan 26 urteko erreperorioaren erreposoa egin zuen.



Aixita Pop Foundation taldeko kideak. UTZITAKOIA

Pikuxar proiektu berria sustatzeko melodia eta diskoa

Aixita Pop Foundation-ek Pikuxar proiektu berriaren abestia egin du: Pikuberri. Diskoa kaleratu du orain

IRURTZUN

Pikuberri Irurtzungo Pikuxar elkartetik sortu den proiektu berria da. Proiektua martxan jartzeko hainbat ekimen jarri dituzte martxan, haien artean, Aixita Pop Foundationek sortutako abestia: Pikuberri. Oskar Alonso irurtzundarra dago Aixita Pop Foundation-en atzean.

Hainbat taldetan aritu ondoren, haren etxean musika egiten hasi zen Alonso. Helburua musika egitea zen. Eski lasterketa bateko dokumentalaren musika egitea eskatu zioten, eta hor sortu zen Aixita Pop Foundation, "horrela, kasualitatez". Pikuxar elkarte berria bultzatzeko abestia etorri zen gero, Pikuberri tituluarekin. Nerea Baldak egin zuen Pikuberri abestiaren letra. Diskoa kaleratu berri du, Irurtzungo Pikuxar tabernaren barran eros daitekeena, eta talde bezala abesteguz egiten hasi dira ere.

"Aixita Pop diskoaren atzean ni bakarrik nago". Mezklak eta masterra egiteko Galiziako lagun baten laguntza izan du, baina beste guztia Oskar Alonsok etxean egin du, baita letrak ere. "Betidanik musika taldeetan egon naiz. Talde batean baxua jotzen, bestean gitarra, bateria... Baina iritsi zen momentu bat ez non ez neukan denborarik talde batean egoteko". Baina Alonso "musika ez uzteko" etxean musika egiten hasi zen. "Helburua musika egitea da, etortzen dena ikusiko da". Orain Aixita Pop taldea osatu eta bost lagu-

nekin elkartzen hasi da Alonso eta lokal batean entsetzen dute etorkizunean kontzertuak emateko.

Melodiak dira Aixita Pop Foundation-en bereizgarri nabarmenak, Alonsoren hitzetan. "Estrilloak gogoraerazak dira eta laster abestera eramaten dute". Pop-rock estilotik gertu dabil Foo fighters, Queens Of the stone age eta bestelako talde ospetsuengandik inspirazioa hartzen.

Aixita Pop-ek diskoa Irurtzungo festetan kaleratu du Pikurekord-en eskutik: "Pikuxar berriaren beste proiektu bat da. Momentuz garatu gabe dago". Momentuz Aixita Foundation Pop diskoa grabatu dute, baina "kultur jarduera gehiago" egitea da haien nahia.

"Etxean musika sortzen hasi nintzenez, hasi ziren Pikuberri proiektuarekin ere. Beraz, abesti bat sortzea polita izan litzatekeela iruditu zitzaidan". Bideoklipa grabatu zuten ere: "bazkideen selfie osatuta dago".

Diskoaren irabazi guztiak Pikuberri euskal txoko berria egiteko izanen dira. Diskoa zazpi abestiz osatua dago eta Pikuberri abestia sartuta dago, Pikuxarren proiektu berria bultzatzeko sortu zuen abestia. Alonso Pikuxar proiektuan dago eta Pikuxarren helburu nagusia euskara bultzatzea dela azaldu du: "txikitatik dakit euskara, baina ez erabiltzeak ahaztera eramana nau. Pixkuxar proiektua oso garrantzitsua iruditzen zait".

"Antzerkian pertsonaia sentitu behar duzu"

ELUR OLABIDE IZQUIERDO AKTOREA

Erriberriko Antzerki Jaialdian antzerki emanaldian aritu da Elur Olabide aktorea Nafarroako Antzerki Eskolarekin. Oparia izan dela dio aktore altsasuarrak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Elur Olabide altsasuarrak Nafarroako Antzerki Eskolan aktore ikasketak amaitu berri ditu. Ikasturte amaierako lana *Eché mi corazón a freir en la sartén* antzezlan izan da. Erriberriko Antzerki Jaialdian emanaldia egiteko aukera izan dute.

Nafarroako Antzerki Eskolarekin Eché mi corazón a freir en la sartén antzezlan egin zenuen Erriberriko Antzerki Jaialdian. Nolako izan zen esperientzia?

Esperientzia desberdina izan da. Antzezlari honekin hamai-kagarren emanaldia zen, eta beste hamarrak Antzerki Eskolan egin genituen. Orduan, eszenatoki hain handia ikusi genuenean izugarria izan zen. Gainera, Erriberriko Jaialdia zen. Opari bat bezalakoa izan da. Nafarra izanda Erriberriko Jaialdian parte hartzea oso polita izan da.

Zeri buruzkoa da antzezlan?

Emakumeok harremanak eta sentimenduak nola kudeatzen ditugun azaltzen du, eta matxismoari buruz hitz egiten du ere. Angelica Liddell-en obra bat da. Normalean protagonista bateko obrak egiten ditu, eta zuzendariak, Ramon Vidalek, hainbat lan hartu zituen eta haiekin sei emakumezko pertsonaia atera zituen. Emakume horiek bere min guztiak kanpora ateratzen dituzte.

Sentimenduz beteriko pertsonaia, beraz. Nolako esperientzia izan da holako pertsonaia interpretatzea?

Hasieran oso zaila izan zen. Inoiz sentitu ez ditudan gauzak interpretatu behar nituelako. Hasiera zaila izan da. Zailena gizonetzko pertsonaia bat ere egiten nuela izan zen. Gizonezkoak emakumea jotzen zuen, iraintzen zuen... eta zaila izan zen. Baina aldi berean dibertigarria zen. Nire buruari galdetzen nion zergatik zen hain dibertigarria paper hura.



Elur Olabide aktorea Erriberriko Antzerki Jaialdian. UTZITAKOIA

Nolako izan ohi da pertsonaia batean sartzeko prozesua?

Lehenengo gauza testua ikastea da. Entsegura testua ikasita eramaten dugu eta jolasten hasten gara. Jolas horietatik perla bat ateratzen dugu eta harekin lan egiten dugu. Nik, esaterako, lurrarekin lan egiten dut, lurraz zer iradokitzen didan.

Antzerki Eskolako ikaslea zara. Zergatik antzerkia?

Bai, aurrean azken ikasturtea egin dut eta antzezlari hau ikasturte amaierako lana izan da. Praktikak dira. Txikitik gustatzen zitzaidan interpretatzea eta jolastea, baina gero alde batera utzi nuen. Argazkilaritza ikasi nuen eta gidoiak-eta idaztea gustatzen zitzaidan. Baina film laburrak egiteko aktoreak bilatzeko azaroak nituen eta nik egiten nuen. Interpretatzen aurkitu nuen nire burua, ni sentitzen naiz. Antzerki Eskolara frogatzeagatik joan nintzen.

Etorkizunean zer?

Antzerkian jarraitu nahi nuke. Ikasten jarraituko dut, master antzeko bat egin nahi dut. Antzerkian ikasten eta lanean jarraitu nahi nuke, bai. Baina oso zaila da. Duela hilabete

batzuk lagun batzuekin batera egin genuen obra bat mustu genuen, *Los ecos del silencio*, Euskal memoriari buruzkoa eta bi urte lanean aritu ginen hura egiten. Eta gero ez dira emanaldiak ateratzen. Mara mara antzerki konpainiarekin egin nuen obra hori eta Iruñeko beste antzerki konpainia batean nago: Lilura teatro. Lan pixka bat ateratzen da. Gogoz hartu behar da.

Sakanan aritu nahi zenuke?

Noski. Sakanan dossierak bidalita daude, Altsasura behintzat bai. Iortia kultur gunean antzezte, zure herrian egotea, oso polita da.

Interpretazioaren munduko beste generoak gustuko dituzu? Zinema, telebista...?

Zinema ere gustatzen zait. Baina antzerkia nahiago dut. Sor-kuntza lan gehiago dago antzerkian. Zineman pertsonaia sortzeko ez dago hainbeste lanik. Antzerkian momentuan egiten da eta publikoarekin harremanetan zaude. Gainera, pertsonaia bat sortu behar duzu eta obra bukatu arte pertsonaia hori izan behar da. Gehiago sentitu behar da. Hori zineman ez da geratzen.

11 GALDERA



Imanol Erbiti Taldeko kideak Pirinioetan Frantziako Tourreko etapa itxoiten. UTZITAKOA

"Taldekideak bagina bezala tratatzen gaitu"

Frantziako Tourra Pirinioetara iritsi da eta harekin proba ikustera joandako zaleak. Haien artean Imanol Erbiti Taldeko kideak diren Aitor Agirrezabal, Izaro Arbilla, Txema Urroz, Markel Azkona eta Iñaki Velez izan dira; txirrindulariaren Hiriberriko lagunak

Erkuden Ruiz Barroso HIRIBERRI ARAKIL

1 Imanol Erbiti Taldea osatzen duzue Erbiti txirrindulariaren Hiriberriko lagunak.

Imanolen lagunak izateaz aparte txirrindularitza gustuko dugu, eta oporrak aprobetxatuz kirol honetaz gozatzea joaten gara. Bidaiatzen dugu, lekuak ezagutzen ditugu eta abar.

2 Erbitiren 9. tourra da. Bederatzi urteetan joan zarete bere atzetik?

Urtero ez. Baina bai egon gara gehienetan. Pirinioetan egoten gara Tourrean, ez gara urrunago joan.

3 Zenbat probatan egon zarete Erbiti jarraitzen?

Vueltan egon gara. Hiru alditan Flandrian egon gara bertan egi-

ten diren lasterketetan. Aurten ere egon ginen Flandriako Tourrean. Aitzakia berberarekin, Aste Santuko oporrak ziren.

4 Asteartean iritsi zen Tourra Pirinioetara eta zuek ere han egon zarete.

Asteazkenean batu ginen Tourrera. Saint-Lary-Soulan mendatean ikusi genuen Tourra.

Atzo ez genuen etapa ikusi nahia-goenuelako Tourmaletera zuzenean joan gaurko lekua hartzeko. Larunbatean Senpereko erlojupekoan egongo gara.

5 Eta nola ikusten duzue Erbiti?

Guk beti bezala bere lanean ongi ikusi dugu. Profesionalentara pasa zenetik beti egon da besteendako lanean. Eta bikain egiten du. Emaitzak ez dira oso onak izaten ari taldearendako, baina gu berarekin pozik gaude.

6 Txirrindularitza oso kirol gogorra da, Erbitiren lana laguntzea da, izate moduan ere islatzen da?

Esaten diogu umila dela, batzuetan umilegia da. Duela gutxi geunden orain bezala eserita eta mezu bat bidali zigun galdetuz ea ongi geunden. Kurioso da nola bera munduko lasterketa gogorrenetarikoa murgilduta zegoen, eta arduratu zen gu ongi geunden jakiteaz. Txirrindularen gainean bere liderrak laguntzen dituen bezala lagunak bizikletatik kanpo zaindu egiten ditu.

7 Zuen laguntza eskertzen du.

Bai, eskertuegia. Duela pare bat urte Aubisquen geunden eta bero ikaragarria egiten zuen. Gu helmugatik 2 kilometrotara geunden eta bera lasterketa amaitu, eta jaitsi zen guri edaria eta janaria eramatera. Taldekideak izango bagina bezala gu ere hornitu gintuen janariz eta edariz.

8 Berarekin egoteko aukera duzue?

Bai, saiatzen gara etaparen baten amaieran hotelera gerturatzeko. Beti dauka unetxo bat gurekin egoteko eta beste gauza batzuei buruz hitz egiteko.

9 Txirrindularitza gustuko duzue, baina Tourrean sortzen den giroa ezaguna da. Giroagatik joaten zarete ere?

Tourreko giroa ez da polita. Oso masifikatua egoten da. Beste txirrindularitza lasterketa batzuetan batzen den jendea bai du txirrindularitza gustuko. Tourra askoz gauza handiagoa da eta jende ugari ikusten da ez dena txirrindularitza zalea. Eta horrek askotan giroa kaltetzen du.

10 Pirinioetan Euskal Herriko jende asko joan ohi da. Gainera, larunbateko etapa Senpere eta Ezpeleta artean izanen da. Aldarrikapenerako lekua dago?

Euskaltel eta ESAIT zeudenean mugimendua egoten zen. Karpa muntatzen zuten eta aldarrikapen giroa egoten zen. Aurten Senpere eta Ezpeleta arteko etapen Tourra Euskal Herrian amaituko dela aldarrikatzeko ekimenak izanen da. Kanpaina bat egin dute hori aldarrikatzeko. Kartel ugari prestatzen ari dira eta irudietan, larunbateko etapen, ikurrina ugari ikusiko ditugula uste dut. Baina, bai, Pirinioetan Euskal Herriko lagun pila egonen da.

11 Denboraldia amaituta, ospakizun egiten duzue?

Bai, saiatzen gara. Berak oso opor gutxi izaten ditu, urrian bi edo hiru aste hartzen ditu eta saiatzen gara afariren bat egiten. Azkenean urte osoan asko zaindu behar izaten du bere burua, elikadura eta entrenamenduak direla eta. Eta urria aldera afari erraldoi bat egiten dugu Arakilen; berak egindako lana eskertzeko ospakizun moduko bat.

Bazkide sarituak

Iraileko sariak:

- **Beatriz Razkin Razkin (Lakuntza)**
- **Jose Ignacio Zubelzu Guinea (Olazti)**
- **Castillo Garcia Lopez (Altsasu)**
- **M^a Angeles Fdez. Arroiabide (Altsasu)**

1. SARIA:
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:
 DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:
 SARRERA BANA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA













